



ATV

4698

Es de D. Jorge de S. Juan
yago Abad de la Santa
de la Villa de Arco.

Absolucion de la Bulla

Misericordia tui & S.
Indulgentiam & S.

Auctoritate dei omnipotentis et Beatorum Apostolorum Petri et Pauli et Sancte Romane Ecclesie ubi specialiter concessa et mihi Commisum Ego te absolvo ab omni Sententia excommunicationis majoris vel minoris Suspensionis et Interdicti a jure vel ab omni

minibus aliis quibuscunque
penis vel censuris in quibus
qua cumque et causa incurristi;
quamvis earum absolutio sit
reservata Sancte Sedi Apostolice
ita ut tibi per bullam ^{cruciate} ~~excommunicate~~ con
ceditur et Restitutione unioni et
communicationi fidelium. Item
eadem auctoritate Ego te absolvo
ab omnibus peccatis tuis e modo
cumque reservatis et concedo
tibi Indulgentiam plenariam,
et Communionem omnium peccato
rum tuorum de quibus sive in
aliquo tempore, confers erit
ab aliis quibus ignorari aut obli
tus fuisse. Et absolvetur a penis pu
gato xij In nomine Patris X filij
et Spiritu Sancti Amen.

N-12774 ONDO ILLTCEN ERV 1204

ICASTECO,

ETA ONDO ILLTCEN LAGUNTCECO

Egercicioac.

ONDO ILL NAI DUTENAI,

ta ondo illtcen lagundu nai duten

Jaincoaren Ministroai ; Jesus-en

Compañiaco Aita Agustin

Cardaberaz-ec esqüent-

cen diztenac.

1787



URTEAN.

BEARDAN BEZALA.

Colosan : Libruguille Don Francisco de la
Lama-rén Echean.

ICASTHCO

TA ONDO HICEN LACUNTOCO

Exhibition

ONDO III MAI DUTEM

et dabo illis linguas ut loquantur

et dabo illis linguas ut loquantur

Complutensis Alti Agustin

Cardipatar ex comitatu

ecc diocesis



UTEM

177

BERNARDUS REZALA

Libraria : Libraria de Francisco de
Luzonien-Foren

SARRERA.

Libruchō onetan , ondo ill nai dezun
Cristava , Elizafen Dottinan , ta Santuen
egemploetan icasico dezu zūre azqueneco be-
arren dezun Ceruco lecioa. Ilcorrac , edo jaio,
ta il bear duenac emen lpsillu arguiari beza-
la , bere burua contuz , ondo icusi beardu.
Certa goien , ta infernua bean zūre beguira
daude : eta zu bien bitartean. Zūre azque-
neco asnaseac , erremedio gabe , sententia
aguertuco dū : edo betico Cerua , edo betico
infernua.

LECIO ONEN INDULGENCIAC.

Onetara zu animatzeco jaquizu , Li-
bru onetaco edocen orri edo gau-
za iracurteagatic , bacoitzean , da bacoit-
zari Toledoco Cardenal Jaunac eun egu-
neco Indulgenciac eman diozcala. Beste
eun eguneco barcacioa Dottinaco orri edo
oja bat , edo bacoitza iracurteagatic : oro-
bat beste nere Libruchonetan , edo Nove-
na , ta Devocioac eguiteagaic : eta are gue-
lago Jesus-en bost Llaga sagraduen Devo-
cio-laburra , eta erraz buruan artuco de-

zuna , eguitea gatic : ta au naiz Eusque araz,
naiz Erdaraz , Lezoco Santo Cristoaren De-
vocioan dagoen bezala: eta Indulgencia oiec
guciac Euscaldun guciac edocē lecu , ta
demboretan dituzte , ta betico. Orra costu
guchian irabaci andia.

AVISO BI.

JAincoaren Ministroac badaquite , Elizac
Manual sagraduan erienzat favore andi
bi dacartciela. Bata dan , Fedeco Actuac,
eta Sacramentuen confesioa : eta Ministroa-
ri Eleizac esaten dio , eri bacoitzari bere
izqueran oriec eraguiteco. Ala Viaticoa
eman baño lén , conveni dà actu oriec guz-
tiai eraguitea. Orretaraco diran guciac Eus-
queraz Libru onetan eman ditut; çeren Elei-
zaren gauzac , ta debocio , ta irabaci andi-
co actuac diraden.

Bigarren favorea dà, Deabruen contraco
conjuroac , eta armac , edo Evangelio san-
tuac eriai errezatcea. Auziemen faltazan :
orañ Eleiza Ama Santac nai duen bezala,
Evangelioac beren oracioaquin , Libru
onen azquenean ematen ditut.

BIGAR-

BIGARREN AVISOA.

Bizcayan , Nafarroan , da emen Libru onen lecioan gauza miragarriac Jaincoac beti eguin ditu, Abade Jaun celosoac testigu onac dira. Oiec diote Baserri gende on ascoc , Jai egunetan bacarric iracurten asi, ta icasi , ta Libru onequin iltcen laguntzeari eman diotela. Aingueruen oficioa artu dute , ta animenzat bearren dana, Egun oietan emen Loiolaco auzoan celo andico Abade batec iltzeco cegoen bati , ta eche-coai esan die : “ Ea banoa , ta contu , eriac ” ecer nai badu , avisa nazazute , eta etorric ” naiz. Ez , Jauna : urlia auzoan degu , ta ” Ondo iltceco Librutic , chit ederqui la- ” guntcen dio. ; Eta urlia ori nor dá ? Baserri- co Nescacha Jaietan lecioa artu , ta beste gabe , erraz , laster , ta ondo iracurten icasi duen bat. Dembora guchian gende asco onetara , ta chit ederqui eguin dira.

Alá Abade Jaun animen zale diranac , ta ondo iltcen ascori laguntcen dienac , dea- darrez diote : “ Cura , ta beste Minis- ” troac ondo iltcen , bear bezala , ez la- ” guntceco , aitzaguiaric eztute ; Bada Li- ” bruu onetan , bear dan guztia edoceñec

„arquicen du : gogoa duenac escusaric ez-
 „tu, Maisu jaquinsu, ta chit famatu ba-
 tec nere Libru au contuz icusi, ta atse-
 guin andiaz esan zuen. „Libru onequin ani-
 „men salvacioco frutu andia Euscaldun-
 „tan ateraco da; eta Cura Jaunen carga
 „consuelo andiaz asco aliviatuco da. „Ala
 ecusten da.

Orregatic deabruac bere guezurraquin
 asco engañatcen ditu, baita obligacio gue-
 yena dutenac ere; eta oiec beren erausia-
 quin, uste duten baño calte gueiago ani-
 metan eguiten dute. Batac dio Eusquerazco
 Dotrina edo Libruac ecin iracurri, edo adi-
 tu dituela: besteac Eusquera Algarabia,
 Gregueria Guirigai, edo naspilla madarica-
 tua dala. ¡Ah dontsu choroac, ta dea-
 bru charrac ondo erraz itsutuac! Oriec gue-
 zurrac, ametsac, edo aitzaquiac dira. Eus-
 quera bedeincatua, edo Jaincoaren bendi-
 cioz, ta errégaliaz berea dá. Eusquera be-
 rez chit nasgabe, edo garbia, arguia, ta
 vicia dá. ¡O Euscaldunac ala balira! Cem-
 bat ere diran beste izquierda, edo lengoa-
 jeac, bati ere ecer zor eztio. Eusquera
 guciac beceñ ederra, eta beste asco baño
 ederragoa dá: errazago icasten, itz eguiten
 ta irácurten da.

Aurrae

Aurac , ta bestez gogetic asi , ta aire
galantean icasten dute. Juicioa duenac , ta
Jaincoarequico eguia esan naiduenac , beste-
rie ecin esangodu. Chiquitan zuc , eta gu-
cioc icasi guenduen Doctrina berbera Carti-
llan iracurten da. Bestec iracurri , edo predi-
catuta zuc guztia aditcen dezu. Lotsagar-
rizco gauza dá zuc ez iracurtea ; gogoa ba-
cendu , iracurten erraz da. Aimbeste dem-
boran , urte ascotaco Misioetan Bizcaian,
Nafarroan , Araban ta emen guc prediatu
deguna berbera Libruetan ematen da : au
eguia clara da. Baña asco beren naguitasu-
naz itsuac daude ; orrela vici ta ilteen diras
eta juicio gabe , guezur orretan eguiaren
munduan , edo Jaunaren juicioan arquit-
cendira. Jaincoac itsu oic argui dirzala:
eta beste Cristau , Ministro , ta Maisu jui-
ciozcoac bezala , anima ascoren salvacio-
raco conseju obeac artu , ta emateco diela
bere gracia Amen.

ARQUIBIDE,

EDO INDICEA.

O Ndo iltcea , cerdan.	Pag. 2.
Testamentua eguitea.	8.
Azqueneco , edo iltceco Confesioa.	16
Azqueneco,edo iltcecoComunioa,edo Viaticoa	20
Oleacioa edo azquen Uncioa.	25
Ritus conferendi Eucharistiam.	30
Ordo ministrandi S. Untcionem.	35
Indulgentia pro articulo mortis.	44
Commendatio anime.	46
Animaren recomendacioa.	55
Viaticoa artu , ta eriac eguin bear duena.	65
Ordu artaraco Consideracio , ta Afectuac.	ibid
Oleacio artu ezquero Consideracioac.	71
Ondo iltcen laguntceco Egercicioac.	74
Eleiza Santuaren Oracio , ta Contriziozco Afectoac.	77
'Ama Virginiari , S. Joseri , S. Miguel , da Santuai Escariac.	87
Fede, Esperanza, ta Amoriozco Actuac.	90
Espiritu Santuari Escari , ta Afectuac.	92
Aita Eternoari bere Semearen ofrenda.	94
Jaincoa icusteco deseo Santuac.	98
Iltceco zorian Afecto vici laburrac.	100
Evangeliu Santuac bere oracioaquin.	105



ONDO ILTCEN

ICASTECO,

TA ONDO ILTCEN

LAGUNTCECO

EGERCICIOAC.

IRACURLE EUSCILDUNARI

Paquea , eta Eriotza ona.

ORI onecoa zu izateco , zu-
re izate , ta eguiteco gu-
cia dago , Jaincoaren Fede-
co , ta Legueco gauzac on-
do icasi , ta sinistu , ta orie-
tan eta oriequin ondo vici , ta ondo ilt-
cean. Ez ta asco ondo jaquitea , ta ez on-
do

do asitcea, Escritura Sagraduac, ta beste Libruac diotenez: *asco ondo asi, ta gaizqui acabatu, edo asacatu oiran*. Orregatic, bada ondo asitceco, ondo prestaceco ta ondo iltceco Egercicio au orañ eman nai dizut.

LENENGO §. EGUITECO AU CER DAN.

CRistavac, lurrean vici dan artean, eguiteco andiagoric ez du, paquean Jaincoaren gracion illtcea baño, Zure, ta nere eguitecoric bearrena au da. Jesu-Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, ta bearrà au dà. Au dà Jaunaren misericordia gucien andiena, doai gucien doaia, gracia gucien gracia. Au dà Ceruco Atearen gultza, mesede gucien sillua, meritu gucien saria, ta favore gucien coroa.

Argatic ondo illteen icastea dà Ceruco lecioric egoquiena: ta ondo illteen laguncea dà Aingueruen ofiçioric onena. ¿Naizu bada, ondo ill, edo ondo illteen icasi? Jaquizu bada, Jaincoac S. Pablo-ren aotic diona: *vici dan bezala gucienean illten dala*. Vicitza nolacoa, eriotza alacoa. ¿Naizu ondo ill? Jaquizu, bada, Jaincoac David-en aotic diona: *peccatari, edo injustoa eriotzan gaizac arrapat-*
cen

*sen dutela : gaitz gu cien gaitza eriotza gaistoa dà. ; Naizu ondo ill? Jaquizu bada , Jaincoac beraren aotic diona : peccatarien eriotza aren beguietan nezcagarria dala. ; Naizu ondo ill, edo ondo illtceen icasi? Jaquizu , bada , Espiritu Santuac diola : viotz gogorra azque-
neco egunean chit gaizqui arquituco dala.*

Orrela ondo illtceen icastea cer dà ? Dà eriotza baño lén , edo zure vicitzan illtcea. Ondo illtceen icastea dà , eriotzan naico dezuna, orañ , ta beti eguitea. Ondo illtceen icastea dà , demonio , mundu , ta araguiarenzat zu bereala illtcea. Ondo illtcea bera dá , pecatu gabe, Jaincoaren gracion irautea. Iraute onec lenago gracion egotea , Jaincoaren adisquide izatea , berez escatcendu, edo esan nai du,

Ill-gaitean , bada , Cristaba , zu ta ni gure vicitzan , vici gaitean gure eriotzan. Eriotza beti beguien aurrean badacargu , eriotzan cer eguiñic izango ezdegu. Onela vicitzan illagatic, munduco eroac baño tristeago vicico ezguera ; baicic aiec baño aleguereago. Aien alegria acabatucodá, ta gurea betico izango dá. Aien alegria azaletic , ta campoticacoa da; baña gurea mamitic, ta barrendicacua dà. Aien alegria mundu guezurtian , gurea Jainco eguiazcoan beti dago.

Jesu-Cristo Ceruco Maisuac, Aita amoro-
soac

soac bezala esaten diguna dà : *Estote parati: Vigilate : Estote parati.* Ez bein , ezpada biarretan , ta iru aldiz dio : contuan , maneatu-
 turic , ta prest gaudela , ceren , guchien uste degun-
 ean , ill bear degun : ta egun , ta ordu se-
 gururic ez degula . Cristoc ez dio : prestatu ,
 maneatu , edo preparagaiteala ; ezpada ma-
 neatu , paratu , ta prestaturic beti gaudela .
 Mandatu au zuc , eta nic bertatic ardezagun .
 Artcen badegu ; puntu dichoso orretatic zo-
 rionecoac izango guerade . Ta eguia esatera
 descansuzco vici gozoagoric munduan inore
 eztu , beti eriotza gogoan daucanac baño .
 Orregatic Jesus maiteac aimbeste nai digunac
 becela , gozoro vici gaitcan , conseju ori ema-
 ten digu .

Galde , bada eguia au ondo icasi , ta icu-
 si , ta cequitenai galde . Galde Jaincoaren bes-
 te siervo fieleri , ceñac illtceco zorian cego-
 ela , esan zuen : Jaincoari graciai ; oguei , eta
 aimbeste urtean , illtceco becela , egunoro
 confesatu izan naiz : eta orañ atzo bezala con-
 fesateca , beste cer eguiñic ez daucat . Au esan
 ta sosegu , ta paque gozoan ill zan . ¡O dicha
 pare gabea ! ¡O gloria vicia !

Santu , ta Jaincoaren adisquidea galde . ¡O
 zori onecoa , Teofilo Patriarcac S. Arsenio-
 ri bere eriotzan esaten cion ! ¡O zure dichosoa

Arsenio, bada zure vician izan ezdezu instan-
teric eriotza beguien aurrean iduqui ezdezu-
nic! Arsenio au Jaincoaren guizon jaquinsu
famatua, S. Damaso Aita Santuac asco esti-
matu, eta Teodosio Emperadoreari bialdu
eion: onen Seme Arcadio-ren Maisu andi
Palacioan izan du zan: guero berroquei ta
amabost urtean Monje izan zan: eta beti be-
ri eriotza memorian ceucala, miragarritzco
Santu andi eguin, eta eun, ta oguei ur-
tecoa ill zan.

Galde S. Pablo-ri berari, ceñac dion egu-
noro illtzen zala, ta Jesu-Cristorequin egote-
agatic, egunoro ta beti ill nai zuela, ta aren-
zat eriotza irabacia zala; ceren ill ta gloria vi-
cia irabazten zuen. Galde gure auzoetaco, ta
munduaren bazter oietaco Necazaricho gar-
bi beren icerdiaquin jaten ematen diguten
ascori. Orien artean asco, ta nerequico chit
asco, Jaincuaren misericordiaz salvatcen di-
ra: ala eriotzari, datorrenean, arpegu ona-
eguiten diote. Jaunaren vorondateaz batean
soseguz, ta aberats andi asco baño paque obe-
az, alacoric ezbaliz bezala, edo guela bate-
tic bestera aldatcea becala, oiec illtzen dira-
de. ¡O zorioneco pobreac!

Vir-

Virgiña Santa Getrudis-en Exercicioa.

Jesus-en Esposa erregalatu onic ondo illt-
 cen icasteco eguiten zuenaz, guc cereguin
 bear degun eracusten digu. Bere atceneco gait-
 zac artu balu bezala, oiean sartcen zan. Bar-
 rendic, edo bere espirituari esaten baciotea
 bezala, ill berria aditcen zuen, ta illtceco pres-
 ta cedilla. Orduan bere viotcean sartu, anima-
 ribeguiratu, ta bere conciencia esaminiatcen-
 zuen, Jesu Cristoren onetan amoriozco da-
 mu, ta negar andiaquin bereala confesateen
 zan. Bidezcoaz bezala Viatico santua, ta az-
 quen-Oliacioa bere espirituari, Eleizaren ora-
 cioac devocioz esanaz, artcen cituen.
 Jaunari esquer onac, edo graciac eman,
 ta bere Erligiosetatic, ta mundua gandic,
 Eternidadeco biatzea eguiteco despeditcen zan.
 Illtceco zorian bere burua consideratu, San-
 to Cristo bat escuetan artu, ta bere viotza go-
 zoro urtu, ta deseguiñaz, Jaincoari bere fa-
 vorea ordu artaraco chit estu escatcen cion.
 Santa Maria Virgiña Amari, S. Josef, ta be-
 re debocioco Santuari, pauso artan lagunt-
 teco, deitcen cien: ta ya illtceen cegoela
 izen gucz gozo, Jesus, ta Maria esanaz Jau-
 nari bere espiritua encomendatcen, ta en-
 tregatcen cion.

Santa Getrudis andiac ondo illtceco beti eguiten zuen Egercicioa onela zan, ta ori bere devocio, ta amorio guciaz eguin atren, ez penaz, edo triste, ezipada consueloz ta Ceruco favorez bateric vici izan zan, ta chit luzaro. Berroguet urtean bere Conventuco Abadesa, ta orietan Aingueru baten guisa Monjac gobernatu, ta Aingueruen atean Ama Virgiana, ta Evangelista San Juan berequin cituela, bere Esposo Jesus maitearen Biotcean bere anima eman zuen. Ori bera gau oro beste ascoc eguiten du. Egercicio au zue ere beti eguizu, ta nere contu chit poz andiaz, eriotzari beguira, obeto vicico cera, ta Jaunaren paque gozoan oitua bezala, edo oitu nola, illico cera.

Baña eriotzaco ordu au etorri baño len, Jaincoac lecu, ta era ona ematen badizu-ere ondo prestatceco, ta ondo illtceco, lau gauza andi, edo lau pauso, lenago eman bear rac dituzu, ta zure viotcean orañ ondo sartu, ta josi bear dituzu. *Ia.* dà zure atceneco vorondatearen aguiria, edo Testamentua eguitea. *IIa.* zure atceneco Confesioa, edo Penitenciaco Sacramentua. *IIIa.* zure atceneco Comunioa: ta oni Eternidaderaco bidezcoari ematen zaiona bezala Viatico Santua deritza. *IVa.* atceneco Oleacio santua attea.

BIGARRENS. TESTAMENTU EGUITEA.

GAuza arrigarria dá, juiciozco Cristavac,
 contuac cer zucen du, ta xeienda cer
 utci duela, demboraz, ta ondo, Jaincoac
 eman dion vorondate libreaz ez usatcea, edo
 bere Testamentua eguin gabe asco bezala
 soseguz vicitcea. Bost eun ta gueiago ate, Me-
 dicuac diotenez, sosteco eriotzac, edo der-
 repente sarceco ditu: ta bost eun baño ere
 ascoz gueiago bide gorputzetan sarteco izan-
 go dira: ta mirari andia dà, uste gabeco edo
 bat batean eriotza gueiago munduan egu-
 noro ez icustea.

Orregatic Jaincoaren Ministro Celosoac,
 eri bateana deitzen dutenean, lehengo eman
 bear duen pausoa dà, Testamentua dembo-
 raz, ta soseguz eraguitea: alduen moduric
 suaveenaz, eria chit beregan dagoen artean,
 San Agustin-en Cerueo consejua ondo adie-
 razo beardio. Animaren contuaren gañeco Ser-
 moi batean Santuac dio modu onetan: „*Fac,*
 „ *quod faciendum est: fac testamentum, dum,*
 „ *tuus es: nam, si expectaveris infirmita-*
 „ *tem omnino minis, & blandimentis duceris,*
 „ *quo non vis.* „ Esan naidu: „ Eguin bear
 „ dezun eguitecoa eguizu: osasuna dezun ar-
 „ tean, zure jabe ceran artean, Testamentua
 „ egui

„eguizu cergatic atceneco gaitceraco uzten
„badezu, echecoen, edo aideen bildur, edo
„palaguaquin, naizuna eragotci, edo nai ez
„dezuna eraguingo dizute „

Santuaren consejuac guciaquin dú, ta zu-
requin, ta nerequin ere bai: ta nic bezala,
marabedi bat ez iduquiarren zuc, alere mun-
duco aberatsenac bezala, guc ere cer utci ba-
degu: ez acienda, ta ondasunac, baña bai
gorputza, ta anima, gueyago diranac: ala
zuc, eta nic Testamentu balioso bat modu
onetan eguin bear degu.

Cristavaren Testamentua.

„**T**Rínidade guciz Santu, Aita, ta Se-
„mea, ta Espiritu Santua, iru Persona
„distinto, ta Jainco eguiazco bacar baten
„icenean: Nic N. beste munduraco blajea
„nagoela, nere atceneco vorondate, ta Tes-
„tamentua modu onetan eguitendet. Lene-
„na, nere Anima bere potencia, ta aleguin gu-
„ciaquin, Jesu-Cristori bere viotcean, bere
„amorioaz erosia bezala, aguintcen, ta bi-
„urtcen diot. Nere gorputza lurrari, berea be-
„cala, aguintcen diot: ta onequin batean ne-
„re animaren ar gaisto izan diran deseó era-
„gabe guciac, aren janari izan ditean, lur-
„pean betico ondatcea naidet.

„ Nere Animaren Imagiña Jaincoari be-
 „ rac bere antcera eguiña becala , aguincen,
 „ ta biurtcen diot ; baña lotsa , ta damu an-
 „ diaz, ceren pecatuaquin itsustu, ta deseguin
 „ dedan. Nigan diran obra onac , Jaunaren
 „ graciari , bereac bezala aguintcen diozcat ;
 „ ta gaistoac nere desdichari, ceñaren erreme-
 „ dioa Jaunaren misericordian ustede dan.

„ Nere azqueneco vorondate au cumpli
 „ erazotceco Testamentaria , vorondate san-
 „ tu gucien eguille ona Virgiña Maria , Jesu-
 „ Christoc Gurutceco bere Testamentuan
 „ Amatzat utci ciguna icentatcendet : ta Ama
 „ gozo onen amparo, ta piedadean esperanza
 „ daucat , gucia nic desealcendedan baño ere
 „ obeto eraguingo duela. Nere escuan dau-
 „ den irabaci on libre gucien heredero, edo
 „ jabetzat Purgatorioco Anima santa icentat-
 „ cenditut , ta Jaincoaren aurrean nere vi-
 „ tarteco onac izan ditecela, erregucen diet.

„ Guero enean naidet, nere vorondate au
 „ beti firmea, ta dembora gucian baliocoa
 „ izan dedilla. Ta orañdaño pensamentuz,
 „ itzez , ta obraz orren contra eguindedan
 „ gucia , betico deseguitendet : ta nere vo-
 „ rondate onetan firme nago , ta viotz guz-
 „ tico negarraz firmatcendet : ta nere eriotza-
 „ raño onetan irauteco propositu sendo ba

tez sellacendet. Testigu dirala San Josef
 „maitea, nere Aingueru Guardacoa, nere
 „iceneco Santua, San Miguel, S. Gabriel, ta
 „San Rafael, nere vorondate, ta Testa-
 „mentu onetan presente arquitcen diranac.

Ona Testamentu balioso, ta meritü andi-
 co bat, zuc, eta nic, ta edoceneñ inoren cal-
 te, ta ofensa gabe, erraz edoceneñ demboraz,
 edoceneñ lecutan, ta mundu guciaren aurrean
 eguin dezaqueguna.

Baña munduco gaucetan sarturic daudena-
 quin, ta cer utci, edo disponitu dutenaquin,
 Jaincoaren Ministroac bere celoac eratcusi be-
 ardu, ta arrazoi suaveaquin eria demboraz, ta
 juicioan Testamentua eguitera movitu bear-
 du: era ta gracia onetan esanaz, Espiritu San-
 tuac diola: *Eriotzara baño lèn Justicia egui-
 zu.* Eccli. 14. Jaincuari anima, ta bacoitzari
 berea emateco, bere zor, ta artcecoen con-
 tuac, arguiro, ta garbiro ajustatu, ta agui-
 rian ifiñi ditzala: Juicio cabala, ta voronda-
 te librea daucan artean, bere aciendadator-
 quionari eman diozala. Bere atceneco voron-
 date au ondo eguitean, Jaincoaren voron-
 datea eguiten duela.

Ascori Deabruac buruan sartcen, edo pa-
 ratcendie, Testamentua eguiten badute, edo
 Sacramentuac artcen, illico dirala: ta ori be-

ra aideac , eta eriarequin dabiltzanac ascotan
 esaten dute , ta Jaincoac daqui, cer intencio-
 arequin. Ta deabruaren guezur oiequin, Tes-
 tamantu, ta Sacramentu gabe illtceco , peli-
 gro andi , ta jaquiña dá. ¡Ay cer calteac , cer
 ondorengo desdichac emendic datocen ! On-
 do adierazo bear zaie deabruen engañu ori,
 ta orrelacoric ez dezatela sinistu, ta ere guchi-
 ago esan. Jaincoac bacarric gure urte , egun,
 ta orduac dauzca contaturic , ta aren voron-
 date santua dan artean , Testamentu eguiñ,
 ta Sacramentuac artu arren , iñorc ere , ta
 ecerc ere zu ecin illcozaitu , ta ez eriotza
 aurreratuco dízu.

Testamentua eguiñaz, carga andí bat zure
 concienciatic botaco dezu : ta ori quendu , ta
 sosegu guciagorequin egongo cera. Jaincoa-
 ri, ta zure anima bacarrari ondo beguiratu, ta
 gauzac claro aguindu bear dituzu , guero zu
 illezquero , aidén artean auzi , ta deabruen
 aserreac utci ezditzatzun , ta víciac beren
 animac , zure interes pusca bategatic , secu-
 laco galdu ezditzaten, ta aucitan zure ondasu-
 nac ondatu ez dítecn. Aucia deabrua dá as-
 corenzat: ta auciarí ematenzaiona, gucienean
 deabruri ematenzaio : zuc nequez biribilla-
 tuac , deabruac erraz banatcen , ta laster
 ondatcen ditu.

Confesore celodunac , conseju onac onela eman bear ditu , ta eriarí esan , edoceñez fiatú ez dedilla , ezpada Jaincozco guizon andiaquinsu batean, dudetan aren consejua aciertoraco arruaz. Eria libre , ta soseguz Confesoreac utcí beardu , ta andic írten ; edo beraren Testamentu , ta gaucetan ez sartu.

Egemploac obeto esango dizute : Ungriaco Erreguiña Sta. Isabel , beti santa bezala vici , ta eriotzaraco prestaturic vici bazan ere , araco Jaincoaren avisoa izanzue-nean , obeto prestatu zan ; bere Testamentua era onean eguin zuen , ta zuena Jesu Cristoren provechoai utcíen, ta beretzat ill jancí pobre bacar bat gorde zuen , ta Sacramentuac fede, ta amorio andia zartu , ta Cerura juanzan.

S. Carlos Borromeo , bere Milango errira izurria etorri zanean , bereala Testamentuaz prestatu zan , ta pobreai , zuen gucia berena bezala utcí , ta munduco cargaetatic aríndu , ta Aíngueru bat , edo asco bezala, izurriac jo ta illtzen ceudenai Sacramentuac ematera , ta illtzen lagunceraco , Jaunaren celoaz armatu , edo maneatu , ta mirariac eguin cituen. ¡Ah Jaungoicoaren Ministro estimatuac ! ¡Ta ceñ egemplo ederra au ! Santuac , munduco ondasunez betea , ta
abe-

aberatsa izan bazan ere, carga orï arindu, ta Jaincoaren espirituaz bete, ta animen celoz az irazaqui, ta eriotzaren ceñ bildur guchi ceucan.

Escritura Sagraduac Ezequias Erreguearen egemploa contatcendigu. Beñ batean au gaizquitu, ta oïcan chit estuan arquitcen zan; ta orra non Jaincoac Isaías santua mandatu triste batequin bialdu cion: ta dembora aietaco lisuraz, ta oraño solape, ta edergarri gabe, Jaincoaren partez, claro sententia au esan cion: *Dispone domui tue quia morieris tu, & non vives.* Ea, Erreguea: zureac eguindu; manea, manea zaite; Testamentua eguizu, ceren ill beardzun. Au esan ta Profeta joan zan. Sententia onen golpeaz chit ez antsiatuzan: beste aldera giratu, eta negarrari, bereala eman cion.

Bere negar andien artean, justua becala, Jaincoagana bereala biürtuzan ta viotz humill batez bere vicitzagatic oracio eguincion. Onetan Isaías Mandatari santuari, bere bidean cijoala, Jaincuac aguindu cion: zoaz, ta Erregue tristeari esaiozu: aren oracioa aditu dedala: ta amabost urteco vici luzatcen diodala. Ala milagrozo señale cier-toaz icusi zuen; ta guero ondo vici, ta ondo illtzan.

Orain

Orañ zure contua : Erregue au Jainco-
tia , ta santua zan : Jaunaren gusto ta vo-
rondatea vioz onaz eguin zuen , ta miseri-
cordiazco obra on andi asco eguin cituen.
Ta orrez guztiaz ere , eriotzaren berri illu-
nac colpe batean arritu zuen ; ceren edade-
aren lorean , oguei ta emereci urteco Zal-
duna Jaincoaren Erreynoco Coroa-requin,
bere burua , Ceruco favore andien artean,
Erregue icusten zuen. Ta Jaunaren manda-
tu , edo ill bearraren sentenciac beregandic
atera zuen.

¿Cer sustoa , bada , eriotzaren berri tris-
teaz , cer golpea artuco du , ez ura bezala
justu, ezpada zu bezala becatari danac ? ¿Ez
ura bezala Jaincoaren bidean zucen , ezpa-
da zu bezala oquer dabillenaç ? Argatic , ne-
re Cristava , orañ , susto gabe , demboraz,
ta Jaincoaren paquean , Testamentuaren e-
guinquizun ori gueroco bereala eguizu. Ez
arren zuzaz , ta ez edoceñez , gauza oieta-
raco fiatu ; ta ez zure jaquin uste , edo pru-
dencian , dio Espíritu Santuac gueiegui estri-
batu bada gueren gaucetan , Juez zucenac
ezguera : mundua barbullez , edo necioz be-
teric dago : „ *Stultorum infinitus est nume-*
„ *rus* : ta cembat arrotuago , edo presumi-
tuago , ambat Jaincoagandic , ta aciertotíc

urrutiago. Consejari ona billazazu , zure
aeienda , Jaincoarequico , ta munduarequico
galdu nai ezbadazu.

IRUGARREN §. AZQUENECO CON- fesioa.

ONdo illtceco , Penitenciaco Sacramen-
tua , bear becala artcea , dà bigarren
Bidezcoaren Pausoa. Contuzco Jaun edo
Persona batec jornada luce bat cer eguin
duenean, bere echeco gauzac zucenduaz ga-
ñera , bideraco neuriac ere ondo artu bear
ditu. Echeco gauzac, Testamentua mugonez
eguiñaz zucentcen dira : Bideracoac , Peni-
tenciaco Sacramentu , edo Confesioaz. Jain-
coaren Ministroa deitcen dutenean , eria-
aldera joangoda , ta alduen ondoena esan-
go dio.

„ Ea , Cristava , edo N. zure Jaincoaren
„ Tribunaleraco bidean sartcen cera. Eriotza-
„ ren saltoaz beste mnndura ñgaro , eta dan
„ pensamenturic chiquieneraño zure vici guz-
„ tico contu eman beardezu. Baña badaquizu
„ Jaunac bere Juicioan barcatcenduela, emen
„ aren ordeco Ministroac barcatcen duen
„ gucia. Orretaco bada , Jaunaren icenean
„ nator ni , zure pecatuen carga pisua quen-
„ du , ta ariñago, ta errazago beragana joan-
zai-

„zaitean. Actu Contricioco andi bat egui-
 „co damu, ta proposituaz, viotz guztiti-
 „eguin beardezu: eta guero zure culpac,
 „ondo confesatceco, nic pocic argui eman
 „eta lagunduco dizut. „

Ceruco Medicu, edo confesoreac bere er-
 regla seguru, ta jaquiñac ditu emen, noiz,
 ta nola lengo Confesioac berriratu, edo con-
 fesio generala eraguin bear dan. Erregla ori-
 ezaz baliatu, ta paciencia, ta prudenciaz ar-
 maturic lagunduco dio gaisoari. Eta onec or-
 retaco ez dagoela, edo guero eguiteco aizta-
 quiac emanarren, Confesoreac badaqui, or-
 rela fiatu, ta Confesioa utci bear eztala; bai-
 cic, aldan bezala, bereala eraguiñ.

Beste Erreguearen Secretarioa, orrela erio-
 tzac estuturic, arquitcen zan. ¡Ay ene dicta-
 gabea! cion tristeac: ¡Aimbeste erresma pa-
 per, Erregue servitcen escribitu, ta nere con-
 ciencia garbitceco, pliego bat escribitu ez-
 det! ¡Aimbeste Ceru urte oietan erraz iraba-
 ci nezaqueala oraiñ salvacioren peligro one-
 tan nago! Dacuscuna dà lèn chit ondo con-
 fesatuac, eta prestatuac ere, trance artan
 bildur oi dirala.

Ezequias, lèn esan degun Erreguea justua,
 ta contu onecoa zán: alere eriotzaren ispi-
 lluan bere burua icusi, ta chit beregan sar-
 tu,

tu, ta Jaincoagana biurtu zan. Ala, eriotzatic escapatu, ta bere Canticoan negarrez, eta pocez esan cion : *Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animæ meæ.* » Isai. 38. Zure aurrean ustez, Jauna, zuc en ibilli izan naiz ; baña alere orañ aviso onequin, nere vicico urte guciai, animaco damuaz errepaso bat eman bear diet, azturic, edo bestela penitencia gabe ecer utci ote dedan. ¡Ah Cristava ! ¡Erregue gazte Santu batec, bere eriotzaren peligro, ta bildurraz aú eguin zuen ! ¡Zuc pecatari galdua izan nic, cer naico dezu ordu artan ? Orañ eguizu, exemplo jaquin onec eracusten duen becela.

Corteco Jaunandi bat Erligioso baten guelara joan ta esan cion : Aita nere vici guztico culpac soseguz, ta ondo Confesatunaiditut, quezca, edo escrupulo gucietatic libratceco. Galdetucion orduan : Ta Confesio general ori cergatic eguin nai dezu ? ¡Aita, ilcorra inaz, edo eztet ill bear ? Bai. Bada ordu segururic ezdet, ta gueroenean ill beardet. Azqueneco gaitcean, gauza onie eguingo ez det. Negarrez andrea batetic, umeac bestetic : gaitzaren erremedioac, burua zoratua ta, ordu artaraco utci nuelaco viotceco damu, ta arra. Ez orise asco balio duen ani.

anima bat, det : ta orañ Confesio general on bat paquean eguin , ta seguratu naidet : ta Jaincoac nai duenean eriotza betor.

Onec bai San Agustinen consejua ondo artu zuela. „ *Diabolus chyrographum infer-*
„ mantibus præbet : & ne de peccatis doleant,
„ fidem tribuit : caro nem deficere adhuc spe-
„ rat : parentes applaudunt : Medici , ut lu-
„ crentur confortant : & sic divites moriun-
„ tur in inferno. Serm. 58. ad Frat. Apud
 „ Castejon Tom. I. Miss. III. Santuac
 dio : aberàtsac illtceco gaizquitcean , peni-
 tenciariac ez daguiten , deabrua bere seguri-
 dadeaquin batetic sartcen dà , bestetic berac
 vici nai : aideac animatcén dituzte : Medicuac
 desengañatcen ez dituzte : ta ala aberàts tris-
 teac infernuan illcen dira , ceren ill baño ere
 lèn infernuco trance, edo infernu vician sar-
 tcen diran.

Ah Cristava! Demboraz zure beguiac ar-
 gui izatzu , ta orduco contuac orañ ondo
 atera izatzu. Osasunean guztia erraz dà. Pe-
 nitenciaco Sacramentu aú pecatu gucien er-
 remedio seguru , ta erraza dà. Cembat eta
 orañ gueyagotan , ta obeto confesatcen ce-
 ran , orduàn ariñago , ta obeto. Aleandora
 edo erropa zuri lisibara ascotan dijoana, er-
 razago, ta obeto garbitcen dà. Confesioa Ce-

ruc lisiba , edo Jesu-Cristoren odol precio-
soaren bañu sagradu bat dá : ascotan or sar-
teen bacera , Jaincoaren Bildots , edo Agnus-
Dei orrec zure animaco loyac quendu , ta
egunoro garbiago gordeco zaitu.

LAUGARREN §. ILLTCECO COMUNIO,
edo Viatico Santua.

ETernidadeco biaje onetan ondo prestatu,
ta ibiltceco , Bidezcoac bezala , janaria
artu bear dezu. Jaincoaren Ceruco erregaloen
artean duen bocaduric ederrena , gozoena,
ta onena dá Jesu-Cristoren Gorputza, Ceru-
tic etorri zan Ogui vicia, ta berez Ceruraco
autetsi , edo escogituen janari , edo Oguia:
„ *Quid bonum , & pulchrum eius ? Frumen-
tum electorum. Panis vivus , qui de cœlo
descendit.* Zac. 9. Ioan. 6. „ Bidezcoai
becela , bidean goseac ill ezguindecen Jesu-
Cristoc janari aú prestatu cigun. Aú bear be-
zala jateco , eria ondo paratcen dá , Confe-
sioaz pecatuac garbitu , ta Jaunaren gracion
dagoela , Fede , Esperanza , ta Caridadeco
actuaquin. Orrez gañera bere Lagun urco-
aren amorioa beardu , iñorc ecertan ofendi-
tu badu , viotcetic ari barcatuaz : ta berac
iñor ecertan ofenditu badu ari Jaincoaren
ice-

icenean barcacioa escatu , ta guciac paque,
ta amorioan gueratuaz.

Irugarren pauso onetan , chit barrendic
pensatu , ta pisatu bear dezu , nola Erregue
gucien Erregue Soberanoac , Ceruetan dau-
can Magestade aundi gucia chiquitu , edo es-
taliric , bere misericordiazco entrañacgatic
zu visitatcera etorri nai duen : ta nola ezcua-
tatu cortinapean bezala , ta accidenteen es-
talquiaquin badator-ere , munduaren ar-
guia bera dân , arguiac aurrean etorrico diran
ta Jaunaren Ministroa zuriz janciric zure ani-
ma garbia Ceruco eztaietara convidazera.

Onec Ceruco gloriaren Jabea, ta ango on-
dasun, ta prenda segurua, bere escuetan gor-
deric , ta erreverencia andiaz ecarrico dizu:
esan nai det, Jesu-Cristo gure Jainco, taGui-
guizon eguiazcoa, bere amoriozco Sacramen-
tuan, bocadu gozo bacar artan, zure anima gra-
cian badago , bere amorez seculaco bere-
quin bat eguiteco. Zure guelan orrela Jain-
coaren Ministroa sartcen danean, cer esan,
ta cer eguin bear dân , guero esango degu,
ta bitartean Santuen exemploac obeto era-
cutsico dizute.

Jesus Sacramentatu onen amorezco San
Agustin illtceco gaitzaz cegoela, Viatico Sa-
gradua , esan dan becela , eramam cioten : ta

ara-

araco bere viotceco Jabe guztizco maitea
 icusi zuenean, aĩn ta onen poz andia artu zuen
 non bere lecuan viotza ecin cabitu-citzaion,
 ta amorioz irazaqui, urtu, ta egaca irten
 bearciola cirudien. Orduan Agustinen viotz
 amorosoa, beti eztia baño gozoagoa, ta
 oraĩ bere vicio gozoena, Ceruco fenix ba-
 ten guisa, bere espiritu guciarequin asi zan
 modu onetan: Ongui etorria cerala, nere
 Criadore eta Redentorea. Ongui etorri, gu-
 re Paqueguillea. Ongui etorri, gure gaitcen
 erremedioa. Ongui etorri, gure Bideco Via-
 ticoa. Ongui etorri, gure nequeen atsedena.
 Ongui etorri, gure penen consueloa. Ongui
 etorri, gure esperantcen saria. Onela Viatico
 devocioz artu, ta amorez bere anima santa
 Jaincoari eman cion.

Santo Tomás Dotore Aingueruaren vici-
 tzan contateen dà, gaizquitu, ta Ceruraco
 avisoa izandu zuenen, confesatu, ta Viatico
 santua escatu zuela. Au ecarriciotenean, gor-
 putcean argala bacegoen-ere, bere espiritu
 Aingueruzcoac indarrac emanic, lurrean
 etzin, edo belaunico jarri zan, ta gucizco er-
 reverencia miragarriaz Jaun Soberanoa artu
 zuen: ta cequienac bezala, humildade pare-
 gabeaz, Jaunari erregutu cion, beraren ga-
 ñean, ta aren Magestadecagatic escribitu zuen

na, onzat beraren gloriaraco artu ciozala , ta bere jaquiñez , edo ignorancia barcaciozala eeren bere obretan Jaunaren vorondatea beti billatu zuen. Jesu-Cristo bere Maisuari aú esan , ta Viaticoa artu , ta Ainguerua bezala, Aingueruaquin Cerura joan zan.

Anima justu, edo gracion daudenenzat Sacramentu aú Ceruco vicitza bada gaizto ta pecatuco eriotzan daudenenzat , eriotzan vicitzan becela , animaren oriotza dà. Aita Recupito , ondo iltceco Libru baten eguilleac contateendú, guizon bat gaizquitu, nai bezala confesatu , Viaticoa artu , ta salvacioaren señale andiaquin ill zala , ta Conventu batean enterratu zutela. Arrats artan Sacristaya Eliza icustera joan , ta gorputz ori topatuazuen ateraric , ta aren ondoan gigante itsusi izugarri bat. Lastercar igues Preladua-gana joan zan. Aú bere Erligioso guciaquin Procesioan Eleizara jachi zan , ta Sacristavac esan zuena arrituric beguiz icusi zuen.

Gigante icaragarri àn cegoenari , Jaincoaren partez galdetu cion : ¿nor zán , edo cer nai zuen ? Demonioa naiz ni , ta Jaunaren licencia det , gorputz aú, anima dagoen lecura, infernuetara eramateco. Baña Viaticoa artu zuen Ostia orañdic emen dauca : atera-zaiozu , beardan lecuau gordetceco. Forma
sagra-

sagradua, ateracion. Orduan-catea ost arri-
garri bat adituzan, ta puntu batean demonioa
bere gorputz orrequin seculaco ondatu zan.
Sacrtstaba sustotic ill zan, ta beste asco gaizqui
tu ciran. Italian au icusi, ta adituzuten guciac
arritu ciran, ta gueroco utci gabe, bereala
vici modu berrian sartu ciran, Jaun Sacramen-
tatu, bear dan bezala beren viotcetean artce-
co, ta obeto servitceco.

Aita Agustin Castejon, gure Misionero,
ta Erregueren Predicadore famatuac conta-
tzen du, Misio batean, ta Jubilioco Comu-
nioan, guizon galdu bat ondo confesatcera
atrevitu gabe, besteen artean sartu ta gaiz-
qui comulgatu zala. Emazteac, aren vici char-
raren berri cequienac bezala caitu, ta cela-
tan egon, ta icusi zuen icara, ta pena andiaz,
nola guizona, Judas bat iguñic Eleizatic
echera biurtu zan. Arratsaldean viacateneco
Sermoiera, Jaunaren bendicioa artcera joan
ciran. Guizon ori chit illun, ta sustoz igaroa
echera zan: ta vere ustez erreliquiaz beteric
oiera joan zan. Baña ay! Cer lopisua, ta in-
fernurañocoa izan zan! Biaramonean emaz-
teac ill otza bere ondoan arquitu zuen: eta
aren anima erretcen betico infernuan.

Guizon bata, ta bestea comulgatu, ta ill-
ciran: baña vicitzan gaizqui confesatcera, ta
comul-

comulgatcera oituric dagoena, inoiz ere erio-
tzaco orduan baño, gaizquiago comulgatu
ez oida. Oien caltean, zuc ondo vicieten,
ta ondo illtten icasiezazu.

**BOSTGARREN §. OLEACIOA, EDO AZ-
quen Unioa.**

ERiotza, cordelac estitunaz dijoa; ta erioa
postaca dator. Cristavaren atenece
Pansoa aù dà. Zure barriccan enzuten dezu-
Jaincoaren Pregoyac diona: Dembora gue-
yago izango ezta. Ay! Bercala ill bea-
ra: Juicioaren bildurra: ta betico cer izan-
godan, laster icusi bearra! Eriaren vildur
oien artean, an daudenac diote: badijoa aù:
illtten dà: laster betor Oleacioa. Aù dà at-
ceneco Sacramentua, ta animaren sendagar-
ria. Ancinaco gauza Jaquinà dà, Peleara, edo
agoniara (guztia dà bar) guizonac irtececo, le-
nago olioze eguin, edo eman oi cirala, gor-
putza sendoago egoteco, ta etsaien lazoai
burlai eguteco.

Ori berà Eliz Ama Santac illtcer, edo ago-
niam sartceco dagoenaz, Oleacioan eguiten
du, aren anima, ta gorputza etsaien contra
sendoago armatceco: oiee, eta beste virtu-
teac ditu Sacramentu onee. Sacerdotea, lu-
toz bezala, moraduz janciric, guelan sar-

tcenda : Ollo Santua , eta mullo moiso bat-
 zuec artu , ta argui batequin Oracio devo-
 ciozco bat esango dizu , ta an daudenai ere
 bai, Jaincoari zugatic , ta conveni bada, zu-
 re osasuna gatic erregu diozatela. Zuri Sa-
 cramentu aú ondo artceco , onen virtuteac
 esango dizquizu , ta Jaunaren escuetan oso-
 ro zure burua utci dezazula , eta Oliacioa
 emango dizu.

Exemploac. Eriari Extrema Uncioa ema-
 tean, Jaincoac Santa Maria Oñacense bere
 siervari eracusten cion, anima ondo presta-
 tuac chit indar andia artcen zutela , ta lén
 illac bezala , erori , triste ceuden sentiduiac,
 Santac icusten cituen, chit garbi, alai, ta eder
 guelditcen cirala. Ta Santa aú berau iltecer
 cegoela , Jesu-Cristo Aingueru, ta Santua-
 quin , bere ondoan icusi zuen, beste gasoac
 bezala, bera consolatcen , ta animari indar-
 ra ematen : ta S. Pedro Ceruco gultza es-
 cuan zuela , araco convidatcen.

Santa Liduvina , Pazcoa egunean, iltcean
 cegoela , ta Oleacioa mai batean prest ceuca-
 la, Jesus ona, Ama Virgíña , Aingueru, ta
 Santu ascorequin etorri, consolatu, ta az-
 quen Uncioa Cristoc berac eman cion, be-
 rac iltececo, candela Santari escuan ifin cion,
 berac iltcean lagundu , ta berac anima glo-
 riaraco bere viotcean artu cion. Ru-

Ruperto Erromaco Erreguea iltceco zor-
rian cegoen ; baña, asco bezela , Oleacioa ar-
tceco gogo guchitequin , ta oidana , artcera-
ceren etsayac, ta munduco ascoc, esan dan
bezala, buruan sartcen die, Testamentua
eguin, ta Sacramentua artu, ta illico dira-
la. Baña, Erregue oni Jaincoac argui eguin,
ta contuan erorteco gracia emancion ta chit
gogotic escatu , ta Oliacioa artcen zuela icu-
si zuen , eciñ indar andia Sacramentuaz ani-
mac, ta gorputzac artcen zuten. Sendatu zan
ta Jaincoa obeto servitu, ta Santuac bezala
luzaro, urte ascoan bere Erreinoa governa-
tu zuen. Ta orra, conveni danean, nola Ole-
atceac, ez ill ezpada vicia, ta osasun lucea
ematen duen.

Ondo iltceco bada, ta ondo iltcen icaste-
co, lau pauso oyec beti zure animaren be-
guietan iduquitzatzu : era icusico dezu cer
vicitza gozoa, eta cer paquezco eriotza izan-
go dezun. Onela eguiatz erioari eriotza eman-
go diozu. „ *Ero mors tua, o mors.* Osea 13. „
O erioa ! zure eriotza izango naiz. Basilisco,
edo Ersugue-agatic esan oida ; baldin guizo-
nari lenago beguiratcen badio, icusiarequin
illtce duela; baña guizonac lenago Ersuguea
icusten badu, guizonac beguiratuaz, bera ilt-
cen duela. Zure, ta eriotzaren imagina, edo

representacio vicia, eguin eguina. Erioari le-
nago beguiratcen ezpadiozu, bere saminta-
sun guciaz betico ilco zaitu; baña zuc aurea
artu, ta ondo prestatuaz beguiratcen badio-
zu, erioa bera ilco dezu, ta acullu zorrotza
quendu ta gozo gozo eguingo dezu. Guero
gaissoaren Consideracio, ta Afectoac ifinico
dira.



ONDO ILTCEN

LAGUNTCECO

EXERCICIOA:

7. §. JAINCOAREN MINISTROAC
eguin bear duena.

GAirtzac lecu ematen duen artean, onec
bere conseju santuaquin eriarri Testa-
mentua, esandan bezala, eraguin, ta sose-
guz ondo confesatcen lagundu bear dio; ta
Bidezcoaren Ceruco janari, edo Sacremantu
guciz santua, Viaticotzat, bear bezala artce-
co maneatu edo preparatu beardu, modu
onetan esanaz.

Berri

Berri onac , Cristaba : N. berri onac : Cerruco atear Zuretzat erdiz erdi gaur idiquitcen dira , eta ango Medicu Soberanoa bere Viotceco amorioaz dator andic zugana.

Bijoa campora barrengo tristeza ; bada Aingueruen alegria dan Jauna , gaur zure echan , ta viotcean artu bear dezu. ¡O ccr dicha zurea !

Baldin eceren bearric edo gogoric badezu, berac gucia , zuc nai baño-ere obeto eguingo , ta cumplituco dizu.

Baldin zure pecatuac bildurtcen bazaituzte. Jaun aú bera dá gucien eremedio , ta pagu osoa.

Baldin etsayac , ta eriotzac icaratcen bazaituzte , bere graziaz guciac garaitceco lagundu , ta animatuco zaitu.

Baldin osasuna conveni bazatzu : bere escuan dauca. Animacoa Sacramentuan ematendu , bai ta gorputcecoa-ere , ondo badagoquizu. Bera dá osasuna , ta vicitza.

Egun andia dà aú zuretzat : berri onezaz Aingueruac berac admiraturic , Jesu-Cristoren favorea icustera , ta bera adoratcera, bere requin datoz zugana.

¡Orañ bada Cristaba , berri on aú aditu ta norc animatuco ezta? ¡Norc , tristezac utciric , eguiazco alegria viotcean artuco ez du?

Norc

Nor onelaco visitan Jaunaren misericordia
gucia beregan artu , ta beretzat betico naia
co ez du!

Ea bada Cristava, idiqui , zabaldu , ta ale-
guinaz viotz ori alaitu : ta Ceruco Etorcari,
zure Jaberie onenari ordu onean lecu emai-
zu ; ta pecatafi penitenteenzat Jaun au ceñ
ona , ceñ berà , ta gozoa dan , ceregan icusi-
co dezu. Ta nic dacardan, ta ematen dizudan
artean , bera ondo arteco , zure viotceco
deseoric vicienaquin deitu , ta esaiozu.

Atoz Jauna , atoz ordu onean , nere
animaco ostatico pobre onetara : atoz , nere
Jaungoico , nere Eguille, nere Jabe, nere
Salvadorea , ni erremediatcera , animatcera
consolatcera ; zure amorez betetcera , ta
Zu arpeguiz arpegui Ceruan icusteco descoz
bete , irazaqui , ta prestatcera.

RITUS.

Conferendi infirmis Eucharistiam.

„ SACERDOS cum Viatico ingressus ægroti
„ cubiculum, dicat: *V. Pax huic domui.*
„ R. *Et omnibus habitantibus in ea.*

Deposita custodia super mensam , genu-
flectit Sacramento , surgit , aspergit ægrotum
in modum Crucis , postea circumstantes aqua
benedicta dicens: *Asperges me Domine , &c.*
Misere mei , Deus , &c. Gloria Patri , &c.
Repetitur : *Asperges me &c.* Pos-

Postea : Adjutorium nostrum &c. Domine exaudi &c. Dominus vobiscum &c.

OREMUS.

EXaudi nos, Domine Sancte Pater omnipotens æterne Deus : & mittere digneris Sanctum Angelum tuum de Cœlis, qui custodiat, foveat, protegat, visitet, atque defendat omnes habitantes in hoc habitaculo. Per Christum Dominum Nostrum. Amen.

Deinde, Confiteor Deo, &c. Tunc Sacerdos dicit : Misereatur, &c. Indulgentiam, &c. Postea dicit : Dominus Jesus Christus, qui dixit Discipulis suis : Quæcumque ligaveritis super terram, erunt ligata, & in cœlo : & quæcumque solveritis super terram, erunt soluta, & in cœlo : de quorum numero quamvis indignos nos esse voluit : ipse te absolvat ob omnibus peccatis, quæcumque cogitatione, locutione, operatione egisti, & a nexibus peccatorum absolutum perducere dignetur ad regna cœlorum : qui cum Patre & Spiritu Sancto vivit, & regnat in sæcula sæculorum. Amen.

Ad professionem fidei : Sacerdos, Crucem manu tenens quærit vulgari sermone : Credis, &c.

Sacerdote ac erari galdet cendio : Sinistendezu-

dezu Aita Jaungoico Omnipotente Ceruar-
ren, ta lurraren, icustendiran, ta icusten ez-
diran gauza gucien Criadorean? Eriac eran-
tzutendu: Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu Jesu-Cristo aren Seme ba-
carrean? Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu Espiritu-Santuan? Bai, si-
nistendet.

S. Sinistendezu, Aita, eta Semea, eta Es-
piritu-Santua dirala iru Persona, ta eguiazco
Jangoico bat? Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu, Jesu-Christo gure Jauna,
Guizona danez, Espiritu-Santuaren graziaz
sortu, ta Santa Maria gloriosa-gandic jayo
zala, beti Virgíña, Semea jaio bañolén, jaio-
tcean, ta jaio ezquero geratcen zala? Bai, si-
nistendet.

S. Sinistendezu, gure gucien salvacioaga-
tic padecitu zuela, gurutcean josiric il zala?
Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu, enterratua izanzala, Lim-
bora jachi, ta Santuen anima aren etorrera
Santuaren beguira ceudenac andic ateracitue-
la? Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu, irugarren egunan illen ar-
retic piztu zala, Ceruetara igo zala, Aitaren
escuietic dagoela, ta munduaren azquenean
andic viciac, eta illac juzgatcera etorri bear-
duela? Bai, sinistendet.

S. Sinistendezu, gucioc gueren gorputcetā erresucitatu bear degula, beren gorputcetā bacoitzac merecitu zuen bezala, edo saria, edo castigua eramān dezan? Bai, sinistendet.

S. Gurutcea adoracera eman, ta esatendio: Adoratcen, ta bedeicatcen zaitugu, Cristo; ceren zure Gurutce santuaz mundua erredimitu cenduen.

Sacerdoteac gure Jesu-Cristoren Gorputza adonatu, ta arcendu, ta an daudenai eratcusi, ta eriari esaten dio.

S. Orañ Eliza Santa Catolicaren Sacramentuac, ceñaquin salvacioa alcantzatzen degun, confesatu bear dituzu. Sinistendezu Eleiza Santa Catolican, ceña dan Cristau fien Congregacio bat, Bateo, ta beste Sacramentuaz, pecatuac barcatcen zaizquigula, ta betico viciaren eredero eguiten guerala? Bai, sinistendet.

S. Sinisten dezu, Jesu-Cristoc azqueneco afarian esan cituen Consagracioco itzen virtutez, eta edoceñ Sacerdotec, dan pecatari, ta indignoena bada-ere, bear-dan bezala ordenatu, ta esaten dituela, oguiaren substantia, edo izana Cristoren Gorputz, ta ardoaren substantia, edo izana aren Odol biurtcendala: ta nic orañ nere escuetan daucada-

na, Cristoren eguiazco Gorputza dala. Bai
sinistendet.

S. ¿Orrezaz gañera, injuria, edo naigabe-
ren bat eguin dizuten guciai barcartcen diezu
viotcetic? Bai, barcartcen diet.

S. ¿Zuc itcez, edo obraz ofenditu dituzunai
barcacioa escatcen diezu? Bai escatcendiet.

Gauza oiec noiz, ta nola laburrago gal-
detu beardiran, Sacerdoteac ondo begui-
ratucodu.

Sacerdoteac orduan esatendu: „ Domine,
„ *non sum dignus, &c.* „ ta eriac arequin ba-
„ tean iru bider modu onetan:

„ Jauna ez naiz ni diña, zu nere echean,
„ edo animan sartceco; baña zure itzaz nere
„ anima salvatuco dà „

„ S. *Accipe frater vel soror, Viaticum Cor-*
„ *poris Domini nostri Jesu-Christi qui te cus-*
„ *todiat ab hoste maligno, & perducatur ad vitam*
„ *eternam. Amen.*

 „Obeto daquizu, ta naidezu Zuc: baldin
 „trabaju, edo neque guelago eman nai badi-
 „razu paciencia guelago arren indazu: or-
 „rela gucian zure vorondate gozoa dagui-
 „dan, orañ, ta eternidade gucian. Amen. „

Consideracio suave, ta eguiazco oiequin,
 edo guisa onetan Sacerdoteac, edo an dago-
 en batec iracurri, edo esanaz eria gozacaitz
 egonagatic, animatu, ta consolatu bearda,
 ta gueldica Jaunaren bendicioaquin bera go-
 zatucoda, ta escura etorricoda.

Baña osasuna dezun artean gauza oiee on-
 do iracurri, ta obeto pisatcea bertatic, ordu
 artaraco, ta meritu andiagoraco, guretzat
 obe dá, nere deseeä oribera dá.

**S. ONDO ILLTCEN LAGUNTCEGO AZ-
quenean eguin bear dana.**

ETernidadeco biáje onetan eriarí obeto laguntcego, gauza bi cer esan, ta cer eguin orañdie gueratcen dirade. Bata Sacerdoteac Elizaren icenean eguin bearduena; ta bestea eriarequin daudenac, edo ari laguntcen diotenac.

Ta lenena, trance artan, ta Ceruco bidean animac ondo zucentcea, bere ordeco Ministro celosoai Jaincoac ceñ ondo pagateen dien, ta onetan saltatcen dutenac nola castigatcen dituen, Jesuita biren egemploac obeto adieracico digute.

Aita Loner-ec contatcendu, Edmundo Augerio, bere demboran Franciaco Erregueren Confesore, ta animen celo andico Jesuita estimatua, eriorzaco orduan cegoela: ta anima chit eder, ta chit asco bere alde bietatic aguertu citzaiozeala: ta Ceruco milla erregallo, ta berri onen artean, Cerutar eder oiec Edmundoari esan cioten: Gu guera, zure Doctrina, ta conseju santuaquin Ceruco bidean sartu guinduzunac. Jaincoacbiatcen gaitu, ta poz andiaz gatoz zure anima orañ gloriara erama tera. Orduan Jaincoac Jesuita oni esan cion, Anima oriez gañera, Eleiza Santara beste ber-

rogei milla hereje biurtu, edo convertitu ci-
tuela : ta berri gozo oiequin Cerura joanzan.
Tom. 3. pag. in 116.

Gure Jacobo Hautinoc dio , gure Sacer-
dote bat ill izan zala, ta beste Jesuita virtute
andico bati Jaincoac bialdu , ta gauza, edo
berri on ascoren artean esan ciola: Purgatorio-
tic libratu, edo irtenzala; baña animac salbatce-
co, bearzan celo vicia , vicitzan ceren iduqui
etzuen, Jaincoac orren penan aguindu ciola
erriz erri munduco Provincieteran , animai
ondo illtzen lagutcen , eta Aingueruen ofi-
cio au eguiten ibilli cedilla : ta bere conseju
on ascorequin ori eguin zuela. Ah ! Ta Jain-
coaren pisuan nola gauzac pisatcen diran ! Ah
ceñ meca aria an irutendan ! Jaincoaren arpe-
guia dembora artan gucian ez icustea, Jesuita
onenzat cer tormentu gogorra izangozan.

Jaunaren ordeco Ministro Cerucoac: zue-
quin det: beguira ondo , Aingueruen oficio
au lurrean nola eguiten dezuten. Animen ce-
lo ori baldin camuztu , ta oztu bada, egem-
plo oiequin, ta Jaincoaren castiguaren bildur,
ta sariaren esperanzarequin berotu , ta zor-
roztu bedi. Jesu-Cristoren egemploa icusi, ta
gure animen salvacioagatic cer eguin, cer eman,
ta cer eraman zuen, ; Nor animatuco ezta ani-
macgatic, ta bacoiza bereagatic, edo ceñ gau-

za viciro eguitera, icerdiac ematera, ta neque
ac eramatera? Guero ustedegun gloriari be-
guiratu, ta gure neque gucia cer dà? Eguiaz,
ecer ez.

Orañ bada, Sacerdote Jaunac, Jaincoa-
ren Espirituaz gobernatcendala ordu artara-
co egoquien diran Consideracio, ta Afecto
labur asco, ta era ascotara emen arquituco
ditu, bere demboran ondoen datozenac eri-
ari berac esan, ta moduric onenean eraguin
diazazcan.

Aingueruén oficio aít artcendutenac bada-
quite ondo guciac batean, ta ez deadarca,
ta ez presaca, edo itotcen bezala, esan, edo
eraguin bear ezdirala; ezbada paciencia, ta
prudencia, andiaz. Eria estuan dagoenean,
burua argala egotenda: ta ala soseguz, ta
gueldicho, pausaquin, ta aldizca, eriar
afecto orietan egoteco lecu ematen zaiola:
noicean beñ cerbait esan, eta beregan,
edo bere viotcean ori esaten, paquean utci
bear zaio.

Eliza Santaren Oracio eder batetic asico-
naiz, ta Sacerdoteac Santo Christoa escuetan
artu, ta eriar eracutsi, ta Elizac dion bezala
adorerazo bear dio.

§. ELIZA SANTAREN DEVOCIOZCO

*oracio, ta Jesusen Pasioco Articulo, eta**Pausuac dituen.*

Santo Cristoa adoratuaz esatendu : „ Ado-
 „ ratcen zaitugu , Cristo, ta bedeicatcen
 „ zaitugu; ceren zure gurutce Santuaz mun-
 „ dua erredimitu cenduen.

„ Oracioa. Jaungoico misericordioso,
 „ mundua erredimitceagatic, jaio , ta circun-
 „ cidatu nai izancenduena, Juduen artean er-
 „ reprobata , Judas traidorearen laztan fal-
 „ soaz entregatua , socaquin lotua , gaitz ga-
 „ beco vildotsa bezala eriotzara eramana,
 „ Anas, Caifas , Pilatos , ta Herodes en aur-
 „ rean gaizquiro lotsa andiaz aguertua, tes-
 „ tigu falsoaz acusatua , azotez , chistuz , ta
 „ afrentaz betea , aranzaz coroatua, masalle-
 „ coz desonratua , cañaberaz eritua, arpeguia
 „ tapatua , soñeco gabe utcia , iltzeaz guru-
 „ tcean josia , ta gora jasoa , lapur birean ar-
 „ tean ifiñia, beazun, ta vinagrea artuerazoa,
 „ ta lanzaz eritua. Zuc , Jauna , zure pena
 „ santu oiec gatic , ceñac ni pecataria gogora
 „ dacarcidan , ta zure Gurutce santu, ta erio-
 „ tza gatic , libra nazazu(edo N. eri au libra-
 „ ezauz) infernuco penetatic , ta lapur on,
 „ zurequin Gurutcean cegoena, eramane zuen
 „ lecura , eramane azazu. Amen.

„ **O** Nere Cristava , zure penetan egui-
 „ co consueloa arquitu nai badezu, Ja-
 „ un amoroso oni ondo beguira zalozu. Zu-
 „ re Medicu cerucua, ta erremedio bacarra au-
 „ dezu : esan ditugun onen pauso, ta pena
 „ guciac sinistu, ta adora itzatzu, ta zure ani-
 „ ma bere erregaloz betecodu.

„ Medicu onen amorioa ondo pisa ezazu,
 „ ta zure animaco, miñac ta gaitzac sendatce-
 „ co , beguira cer penac, ta nola erremedio-
 „ ric samiñenac berac artu cituen.

„ Beguira nola zure amorioac Gurutcean
 „ josiric , odolezco negarras , ta viotceco
 „ deadarraz Aitari zure barcacioa escatcen,
 „ tormentuz alde gucietatic beteric iltzan.

„ Beguira, nola bere besoac zabalic dauz-
 „ can , pecatariac artceco , ta baldin zu viot-
 „ ceco damuz beregana biurtcen bacera, zu-
 „ ri amoriozco laztan gozoa emateco. Be-
 „ guira nola burua macurturic zuri diez da-
 „ goquizun.

„ Beguira , nola bere bular , ta viotz sa-
 „ gradua idiquiric dauzcan, eriotzaren bildur,
 „ ta etsaien tentacioetatic , zu beregana igues
 „ eguin , ta beregan zu artu , ta seguru gor-
 „ detceco.

„ Be-

„ Bere gorputceco llaga , ta eridac cembat
 „ diran , beste ambeste dei, ta deadar ema-
 „ ten dizquitzu , onen amoreac diola: Atoz,
 „ anima nerea , atoz nigana. Zurea da culpa;
 „ baña nic artudet pena. Baldin zure pecatuen
 „ cargac , eriotzaren ansiaz betean estutcen,
 „ ta azpian artcen bazaituzte , atoz nigana
 „ nic gucien barcacioa eman , ta arindu, ta
 „ consolatuco zaitut. Ezdet , ez igues eguin-
 „ go zure aldetic ; baña ;nola igues eguin ne-
 „ zaque , baldin zukanaco amorioac onac , ta
 „ escuac onela lotu , ta josi badizquit ?

Consideracio oiec gueienac San Agustín
 batenac dira.

O animaren zorioneco dicha! ;Ta bere Ja-
 bearen onelaco itz gozoac adituezquero, nor
 animatuco ezta? ;Ta onelaco Jauna ofen-
 dituaz , nori damuco etzaio ? Ea bada nere-
 quin batean viotcetic esaiozu.

Contriciozco afeñtuac.

„ **A** Y nere Ayta guzritz ona! ;Cer cran-
 „ zungodiot nic zure amoriozco deia-
 „ ri? ;Aitor cendet, Jauna, ta lotsa andiaz zu-
 „ re Semearen icenic mereci ezdedala, bada
 „ zure beguietan, ta nere Ceruco Aitararen con-
 „ tra pecatu eguindet. Ay ! Damudet milla
 „ bider, zu ala, ta aibeste bidet ofendituaz.

„ O damuz ta zure amorez nere viotza ber-
 „ tan puscacén , ta erdi bi eguiten baliz!

„ Ez arren, Jauna , nere culpai beguiratu;
 „ infernua oriecgatic mereci nuela ezagutcen-
 „ det. Beguira bai , zure Ontasun andiari, ni-
 „ zaz misericordia iduquiceco.

„ Zure begui garbiac , nere pecatu loietat-
 „ tic quen itzatzu, ta zure amore, ta piedade-
 „ ari beguiratu, ta diranac barca zaizquidatzu,

„ Ea Jauna : zure misericordiazco beguia-
 „ quín nere anima galduari beguira zaiozu,
 „ ta orrela salvatuco naiz. Nere Salvadoreá
 „ cera : izan zaite ordu onetan ; ta zure icen
 „ santu , gurutce , ta pasioagatic, orañ etsaien
 „ tentacioetatic libratu, ta salva nazazu. Nere
 „ Jesus ona : zure viotcean betico sartu, ta
 „ zure gracion gorde nazazu.

„ Ceruco Aita maitea : Zu gucientzat cera
 „ guciz ona. Ni naiz gucien bearrena : zure
 „ Ontasuna non eracusi , ona nigan, nonde-
 „ zun. Artzai ona eguiatz Zu cera : ona bada
 „ ni zure ardi eguiatz galdua. Ardi galdua zu-
 „ re sorbaldan artu cenduen, edo nere peca-
 „ tuac zure gañean. Galduric ibilla naiz ni:
 „ arren, Jauna , zure artalde , ta zure eche
 „ santura biurtu, ta betico zure gracion ar-
 „ tu nazazu.

„ Nereada culpa , Jesus ona : aimbeste
 „ ofen-

„ ofendidu gaitut, Ay zori gaistoco culpac!
 „ Baña ;cer eguin aldezaquet ? Guztiaz det
 „ damu, Jauna: diranac zure oñetan confesa-
 „ tceen ditut, zure amorezco su vician erre,
 „ ta deseguin ditean.

„ Zugan daucat nere esperanza gucia : ta
 „ bere pecatuen damuaz zugan esperatcen-
 „ duena, inoizere galdu, edo confunditu
 „ izan ezta. Pecatari andi ascori barcatu die-
 „ zu : misericordia ori bera nerequin eguin-
 „ go dezu.

„ Ay Jauna : zugana onen berandu etor-
 „ riaz damu det ! Baña alere badaquit eguiaz-
 „ co damu, ta proposituaz zugana biurtcen,
 „ edo datocen pecatariac, zure piedadearen
 „ atea beti zabalic arquitecendutela. Ona ba-
 „ dà, zugana non natorren, edo gure Onta-
 „ sunac non nacarren,

„ Zure amorioac caburic eztu : fin gabea,
 „ da zure misericordia : niri barcatcean, zu-
 „ re ontasuna icustendà. Argatic ni condena-
 „ tcea nai ezdezu, ezpada ni salvatcea : ta
 „ Zu icusteco, Zu amatceco, Zu gozatceco
 „ zure gloriara ni betico eramatea. O Jauna
 „ ala izan dedilla. Amen.

Ama Virginiari afectoac.

„ **V**irgiña Maria, gure Jaungoico, Sal-
 „ vadore, ta Amore ederraren Ama
 „ mai-

„maitea ! Zu cera pecatari trîsteen misericor-
„diazco Ama.

„Gurutcearen oñean zure Semeari begui-
„ra dolorez beteric ceundenean , berac pe-
„catarien Ama eguin cinduen. O cer consue-
„lo , ta cer dicha paregabea gurea, Zu beza-
„laco Ama ceruan iduquitcea ! Zu cera gu-
„retzat ceruco Atea , ta zugana datorrena-
„renzat beti idiquia.

„Eguia dá , nere anima pecatuaz loituric
„icusi , ta lotsaz , ta damuz beteric zure
„beguietara allegatcen naiz. Baña zугan Er-
„reguiña andi , ta Amandreric onena , nere
„uste osoa , ta segurua daucat. Zure mantu-
„pera, zure amparora nator nere erremedio-
„aren billa.

„Ama guciz maitea , arren zure begui
„eder oriec biurtu itzatzu nigana. Nic ezdet
„ori mereci: ala dá eguia : baña Jesus zure
„Semearen Biotceco amorioac ori mereci,
„ta ori escatcen dizut: ta aren pasio, ta erio-
„tzagatic. Zuc zure balio andiaz , arequin
„nere artean bitarteco gozagarri izan bear
„dezu.

„Ordu onetan iñoizere baño zure bearrago
„naiz. Zure Biotz beraa , ta begui piadosoaz
„beguira zadazu. Misericordiazco Ama izan
„zaite neretzat. Beguira niri : etsai gaistoem
„ar-

„artean estu nabil : oien tentacioetatic libra-
 „nazazu. Zu nere favore cerala, zu nerequin
 „zaitudala , aien bildur eznaiz.

„Ecer nic mereci ezdet ; baña zure Biotceco
 „Semearen odol preciosoagatic, ez arren An-
 „drea , ni orañ desamparatu. Seculan aditu
 „ezta , ta ez adituco , eguiatz zugana biurtu
 „ta zuzaz baliatu danic , amparu gabe guel-
 „ditu dala ; ona bada ni gustiz bearra, viotz
 „gucitic zu gana nator , zukan nere esperan-
 „za osoa deucadala.

„Eriotza , ta eternidade guciarequin bur-
 „ruca , ta pelean icusten nazu : lastimazai-
 „te nizaz Ama guciz beraa, ta gozoa. Nere
 „bildur , ta neque samín guciac bigundu, ta
 „gozatuco dira, Zu nere favore bacera.

„Ea bada peccatarien Ama , anima triste
 „onegatic zure Seme bedeicatuari erreguzaio-
 „zu. Zuc au eguiten badezu , seguru nago,
 „pocic , ta amore onez Zu bezalaco Ama,
 „bera bezalaco Semeac enzungoduela. Itz
 „eguiotzu bada , nere Bitarteco bacarra , ta
 „esaiotzu , ni bezalaco peccatariac salvatcera
 „etorri zala mundura.

„Zu cera gure arguia : argui eguidazu. Zu
 „cera gure paquea : animaco paquea indazu.
 „Zu cera gure consolatzallea : nere anima
 „consola ezazu. Zu cera mundu galduaren

„er-

„erremedioa arquite , ta aguertucen duena
 „nere anima erremedia ezazu. Zu cera zure
 „Seme maitean gure Salvadorea eman cini-
 „guna : izanbedi bada nere Salvadorea: ta ni
 „zugatic salvatuco naiz.

„Badaquit , Esperanza nerea, zure Biotce-
 „co erruqui amorosoa ni ganaño zabaldua-
 „na. Zuc , zure semeac bezala inor conde-
 „natcea, nai ez dezu; baicic gucioc salvatcea.
 „Zure bular gozoac zure Semeari zuc eracut-
 „si ezquero, aren aserre justua bereala goza-
 „tuco dá.

„Nere damua dà zure Semea , ta zu aim-
 „beste ofenditu , ta aserratuaz. Baña guci-
 „damudet , bera danagatic. Damudet viotz
 „guztitic , Jaungoico aín ona ofendituaz.
 „Zuc, zuc pecatu gucien viotceco, ta egui-
 „co damua , ta gucien barcacio oso osoa
 „alcanza zadazu.

„Zu cera andre gucien artean bedeicatua,
 „Jaunaren graciaz , ta doaiez betea : zu gra-
 „ciazco , ta misericordiazco Ama : ona ni
 „desdichaz beteric galdua , ampara nazazu
 „orañ , ta beti Jaincoa amatceco.

San Josef gloriosoari afectuac.

„**O** Nere Santu gozo , agonian , edo ilt-
 „ceco trancean daudenen Bitarte-

„eo seguru , ta poderosoa, ta lagunic onena!
 „Zu bear zaitut ordu onetan nere buruco al-
 „dean. Esqueco pobre , ta eriotzaco ordu
 „estu onetan, zuri deiez dagoen anima tris-
 „te oni beguira zaiozu, ta amparaezazu.

„O nere Josef Santua , ta Santu guciën
 „artean chitez doatsua, ta guciën gañean zo-
 „rionecoa ! Zu bacarric cera paregabecoa,
 „ta guizonen artean bigarrenic ez dezuna.
 „Zu gure Jaungoico guciën artcecodun da-
 „na , gure esacran , zure zordun dezuna.

„Jaincoari gucioc zor diogu , ta zuri gu-
 „cioc zordizugu : ta bai ta Jaincoac berac
 „ere. Bada zure neque, ta icerdiaquin, ne-
 „cazariac bezala , Jaincoaren Semeari , ta
 „Amari Jaten eman, ta vicitzen lagun duci-
 „ñien Lagunzadazu niri orañ , nere ani-
 „ma betico vici dedin.

„O Josef, vicitzan , ta eriotzan Santu gu-
 „ciën dichosoena ! Bada Jesus, ta bere Ama-
 „ren aldean vici izanciñan. Zu Jesus onaren,
 „ta zu Virgîna Ama zure esposa eguiazcoa-
 „ren gozoric, ta atseguînic andiena ciñan lur-
 „rean , ta cera Ceruan. O cer consueloa
 „dedan onetan!

„Ama Semeaz campora, ta Semeac Ama-
 „ren urrena , Zu zaituzte ceruan , ta lurrean
 „criatura guciën gañean guciëna estimatcen,

„ta amaten zaiztutena. ! O cer esperanza dau-
„cadan nic onetan !

„Zu eriotzan , vicitzan bezala , besterie
„ez bezala, dichosoena izan ciñan : bada Je-
„sus buruco aldetic ta Maria Virgíña zure
„oiaren oñetatic , cinduela zure espiritu doa-
„iez , graciáz , ta amorioz betea Jesus onari
„bere escuetan eman ciñion , ta onec bere
„viotcean artu cinduen. O cer vicitza, ô cer
„eriotza ! O cer glotia vicia !

„Dichata favore , esan al baño andiago
„oiec gatic , erregutcen dizut , nere Aitaric
„onena , ta gozoena , nere eriotzan nere-
„quin arquí zaíteala. Zure Esposa santari, ta
„aren Semeari zure icerdiac eracutsi zaiezte-
„zu: eta Amac bere Seme maiteari bere bu-
„lar gozoac eracusi , ta vioc nere pecatuen
„barcacioa segurazazute.

„Jesus , Maria , ta Josef , oraiñ , eta
„beti nere viotcean izan diteala. Jesus, Maria,
„ta Josef , San Juaquín , ta Santa Ana , nie
„entregatcen dizutet nere anima, ta dedan gu-
„cia , ta ni naizana. Jesus , Maria , ta Josef,
„Juaquín ta Ana , nere anima salyatceco
„atozte gucioc nigana. Amen.

San Miguel , ta beste Aingueruai afeñtoac.

„ **C** Eruco Espiritu eder gucien Aguinta-
 „ ri San Miguel glorioso , ta Eliza
 „ Santaren , ta animen Defensore poderoso ,
 „ atoz laster , ; non cera ? Zure Aingueru , ta
 „ Lagun santuaquin atoz nere aldera : orañ-
 „ che da dembora , len Jaincoaren gloriagatic
 „ bezela , orañ beraren amorioagatic , zuc,
 „ eta zure Lagun santuae Lucifer , ta aren
 „ deabru gucien contra , eta nere favore pe-
 „ leatceco.

„ Jaiqui zaitez bada , San Miguel animen
 „ Adisquide , ta Bitarteco andia , ta ots egui-
 „ zu len Ceruan bezala , orañ emen: *Nor fa-*
 „ *incoa bezalacoric*: ta orrequin deabru gu-
 „ ciac Igues emendic aienatu , ta ondatuco
 „ dira.

„ Anima fiel guziac , Jaincoac zuri aguin
 „ duric , zure contura gaude , zuc gorde , ta
 „ amparatceco : Zure escuetatic Jaunaren au-
 „ rrean , ta aren argui eder artan presentatu
 „ ta aguertu bear degu: Ona bada , nere ani-
 „ ma zuri deiez , zure zai , zure beguira non
 „ dagoen.

„ Ama Virgíña , San Josef , ta Aingue-
 „ ruaquin batean arren alcanza zadazu Jauna
 „ gandic fede vici , esperanza firme , ta amo-
 „ rio

„rio santu irazaqui bat , nere pecatu gucien
 „eguiazco damu, ta propositua , Jaincoaren
 „ontasunagatic, nere anima garbiro zure es-
 „cuetan ematceco.

„San Gabriel Aingueruen artean Jaincoa-
 „ren indar miragarria, gure erremedio , ta
 „salvacioraco Ama Virginari berri onac ecar-
 „ri ciñiozcana. Ona anima triste bat zure ber-
 „ri onen bearra daucana. Zure deiez nago:
 „lagun zadazu , ta tentacio gucietatic librat-
 „ceco indarra indazu.

„Ceruco Medico San Rafael mundu one-
 „tan Bidezco dabilztanen Lagun fiela : arren
 „lagun zadazu jornada , ta trance onetan ce-
 „ruco bidea utseguin ezdezadan. Itsua nago:
 „ceruco arguia indazu , eriotza on batequin
 „viaje au ondo eguin , ta arpeguiz arpegui
 „Jaincoa icustera zurequin igo nadin.

„Aingueru Gwardaco, Jaincoac señalatu
 „ta nere zai , lagun on leiala bezala pauso
 „gucietan ibilli cerana : atoz zu ere , atoz, ta
 „pausoric estuen onetan zaitu , ta gorde-
 „nazazu , nere animaz contu ona emateco.

„Zu, ta beste Aingueruac Jaincoaren vo-
 „rondatea gure oneraco beti eguiten ari ce-
 „rate. Ay! Nic ere ori beti eguin banu ! Zu-
 „re avisoac artu banitu, ta zuri beti beguira-
 „tu banizu nere ondoan gau , ta egun! Ay!

„Ta-

„Ta nolacoac, ta ceñ bestelacoac nere pau-
soac, itzac, eta obrac izango ciraden!

„Baña ezagutcen, ta aitotcen det, ta gu-
ciaz damudet. Zue beste Aingueru, ta
„Santuaquin, lagundu beardidazu, Jaunaren
„misericordia arquitceco.

„Patriareta, ta Profeta Santu Jaincoaren
„arguiatz, ta virtutez janciac! Apostolo san-
„tu, Jesusen Discipulo, ta munduaren
„Maisuac! Martiri zuen tormentuaz ceru-
„co Coroa irabaci cendutenac! Dotore
„quinsu, Eleizaren argui andiac! Confes-
„humill, ta penitenteac! Virginea Ceruco
„Erreguearen Esposa garbiac! ¡Cerutar gu-
„ciac batean, atozte nigana, ordu onetan
„ni amparatcera. Jaunari escazaiozute nere
„anima beraren graciaz, ta zuen bitarte-
„coz, zuen lagun Ceruan betico izan dede
Amen.

„Santa Barbara, Jesus maitearen Esposa
„garbi, Virginea, ta Martiri miragarri, erio-
„tzaco orduan daudenen consolatzailea,
„Ona, Eleizacoac dicha andiaz arturic!
„zure amparoaren beguira non nagoen,
„Lagunzadazu, nere bitarteco gozoa or-
„du onetan Jaincoaren amore santuan erio-
„tza on bat eguiteco.

¶ Emen bacoitzaren devocioco Santuañ
escatcen zaie,

*Fede , Esperanza , Amorio , ta Contriciozio
Actoac.*

ESango diran urrengo acto , edo afectoac Sacerdoteac eriarri eraguingo diozca orañ , edo ondoci deritzanean. Baña bearrenac , eta meritoric andienecoac beti dira Fede , Esperanza , ta Caridadeco , edo Contriciozcoac , guisa onetan.

„ O misericordiazco Aita , eta consuelo
„ guztia ren Jaincoa ! Nere animaco begui-
„ ac argui itzatzu , eriotzaco illuntasunaren
„ lo pisuan erori , edo sartu ez nadin. Zure
„ fedearen argui golpe andi bat indazu, Jau-
„ na , zure gauza andi ezcutatuenac , edo
„ fedeco Misterioac , bear bezala , ta zuc
„ naizun moduan , jaquin , adonatu , ta si-
„ nisteco.

„ Zure graciaz bada sinistendet , nere bio-
„ tceco fede oso guciaz Trinidadeco zure
„ Misterio miragarriena : Aita , eta Semea,
„ ta Espiritu-Santua : iru Persona distintoac.
„ Esan naidet : Persona bata ez dala bestea,
„ ez bada irurac bana. Aita dala Aita , Semea
„ dala Semea , ta Espiritu-Santua dala Espí-
„ ritu Santua : ta irurac eguiazco Jaungoico
„ bacar bat dirala. Jaungoico bacar onetan,
„ ta iru Persona oietan sinistendet : aù con-
„ fe-

„ fesarcen , adorarcen , ta viotz guztitic gau-
 „ za guciac baño guciago amarcender.

„ Sinistendet , Jaincoaren Semea , gu sal-
 „ vatcea gatic Guizon eguin zala : Maria
 „ Virginea gatic jaiozala : padecitu , ta Gu-
 „ rutcean ill , enterratu , Limbora jachi , ta
 „ irugarren egunean erresucitatu , ta Cerue-
 „ tara igo zala : andie viciac , eta illac juzga-
 „ tceara etorrico dala.

„ Sinistendet , pecatuen barcaciatoraco Elei-
 „ zan Sacramentuac dirala : Fede bat , Elei-
 „ za bat , ta Bateo bat dala : beste gauza
 „ Eleiza Santac eracusten , ta aguintcendiz-
 „ quidan guciaquin : ta onetatic campora sal-
 „ vacioric ez dala.

„ Sinistendet Aita Jaincoagan : sinistendet
 „ Seme Jaincoagan : sinistendet Espiritu-San-
 „ tu Jaincoagan.

„ Esperatcendet Aita Jaincoagan : esperat-
 „ cendet Seme Jaincoagan : esperatcendet
 „ Espiritu-Santu Jaincoagan.

„ Amarcendet Aita Jaincoa : amarcendet
 „ Seme Jaincoa : amarcendet Espiritu-Santua
 „ Jaincoa : eta damudet nere viotz guztitic
 „ bera ofenditua , bera danagatic.

„ O nere Jaungoieo guztiz Santua , se-
 „ culan ofenditu ez bacindut ! ; O zori gaizto-
 „ co pecatuac , ta pecatuen bideac !

„¡O Jaun guciz justua! Ez arren nerequin
 „contuetan sartu : bada zure beguietan jus-
 „turic inor izango ezta.

„Ay Jauna ¡lhasoco ondar , edo areac
 „baño pecatu gueiago ditut! ;Baña alere zu-
 „re misericordiaren aldean cer dira? Ecer
 „ez. Zure misericordia gueiago , ta neurri,
 „ta contu gabea dà. O cer esperanza gu-
 „cizcoa!

„¡O Jaun guciz ona! Ez niri , eta nere
 „onari beguiratu , ezpada zure onrari. Nic,
 „orañ baño lén , galtcea , ta condenatcea
 „merecinuen ; baña zure Ontasun , ta amo-
 „rioac ni salvatcea naidu. Magdalena , eta
 „beste pecatariac artucinduen : Ea bada,
 „ona beste bat non datorren : zure amo-
 „rioan arnazazu.

„¡O zure amorioan betico irazaquia ba-
 „nengo ! Beti zu amatceco , ta zure amo-
 „re santuan beti erre , ta urtutceco. Eter-
 „nidadeco bide , ta azqueneco pauso one-
 „tan gorde , ta salvanazazu Jauna , zu be-
 „ti alabatceco. Amen.

*Espiritu Santuari Escari , ta afeño , Eleiza
 Ama Santac eguiten diozcanac.*

„**O** Espiritu animen Consoladore , amo-
 „rezco Jaincoa ! Atoz nere nequean

ni consolatcera : atoz nere viotza zure
 gracia gozoaz betetcera. Atoz zure amo-
 rezco sua nigan betico irazaquitcera.

„ Atoz pobreen Aita : atoz doaien ema-
 „ llea : atoz viotcen arguia. Zure argui ga-
 „ be nigan gauza garbiric ezta.

„ Nere loiac garbi itzatzu : nere leortasu-
 „ na ece ezazu : nere eritasuna sendaezazu.
 „ Nere gogortasuna beraa ezazu : nere oz-
 „ tasuna beroezazu : nere oquerrac zucn it-
 „ zatzu.

„ Zu cera Consoladore gucz maitea : ani-
 „ maren etorcari gozoa , ta atseguin eguia
 „ Cerucoa. Zu cera nequeen descansua , es-
 „ tutasunen atsedena , negarretan consueloa.

„ Zu cera Aitaren escuieco Beatza ; atoz,
 „ ta zuretzat señaia nazazu. Zu cera amo-
 „ riozco sua ; atoz , eta irazaqui nazazu. Zu
 „ cera doai gucien iturria ; atoz , eta zure
 „ ur vici orrezaz bete nazazu.

„ Zu cera zazpi Doaien Jabea : atoz ni-
 „ gana , ta oriezaz nere anima jainci ezazu.
 „ Zu cera Aitac Semeari esqueniricaco Con-
 „ solatzallea , ta Semeac guri emana : atoz,
 „ zure arguiarequin Aita , ta Semea , ta Zu,
 „ Espiritu Jaungoico bacarra , emen ondo
 „ ezagutu , ta zure frutu , ta sari gozoa-
 „ quin, Ceruco Glorian obeto , ta betico icu-

si , adonatu , ta gozatu zaitzadan. Amen.

*Aita Eternoari Jesu-Cristo bere Semearen me-
ritoen ofrenda gucizco baliosoa.*

„ **N** Ere Jaungoico guciz justua ! Zure
 „ beguien aurrean , nigan izan aldi-
 „ tequean errespetoric humillen , ta confi-
 „ anzaric andienaz agueritcen naiz. Zure at-
 „ seguin, onra, ta gloriaric andieneco Ofren-
 „ da bat , bere pareric ez duena , nere cul-
 „ pa , ta pecatu andi gucien desconturaco,
 „ zuri presentatcera ; ta oiec zure justicia
 „ aserratu duten bezala , aserre ori guztiro
 „ quentceco , Seme guciz Santu onen vi-
 „ citza , pasio ta eriotzaren Sacrificio one-
 „ quin zure Biotz , ta arpeguia seguru be-
 „ raatu , ta gozatuco da.

„ Beguira bada ondo , Jauna ; ta ondo
 „ baicic ecin beguiratuco diozu. Nere peca-
 „ tuen paguan ematen dizut Zure Semeac,
 „ nere amorez , Virgíña bere amaren sa-
 „ belean gure araguitz janci , eta bederatci
 „ illabetea an egon , ta Belengo Portalean
 „ añ pobre jaiotcean , eta abereen artean
 „ egotean Zuri , Aita Eternoa , iduqui cizun
 „ obediencia.

„ Andic zortci egunera ; bere Circun-

„ cí-

« cisioan, nere salvacioagatic isuri zuen odo-
 « la, ta eguin cituen negar preciosoac: be-
 « re aurtasunean, ta bere vician eraman ci-
 « tuen otz, ta bero; gose, ta egarri; ne-
 « que, ta icerdi guciac.

« Beguira, Jauna, zure onraraco, eguin
 « cituen Oracio, barau, ta penitencia gu-
 « ciac, exemplo, sermoi, ta milagro gu-
 « ciac. Beguira, nola azqueneco afarian,
 « esan al baño humildade andiagoaz, Apos-
 « toloai oñac garbitu, ta nola guc alcar
 « sufritu, ta amatu bear guenduen eracutsi
 « cigun. Beguira, zure gustoa eguitea gatic,
 « afari artan Sacramentu Santua amorio pa-
 « regabeaz, gau, ta egun gurequin egote-
 « co, eguin zuen.

« Beguira, Jauna, cër laztan, ta negar
 « gozoaquin, Pasio, eta eriotzaraco bere
 « Ama maitea gantic despeditu zan; Getse-
 « mani-co baratzen nola iru bider Oracioa
 « eguin zuen: eta Judas saltzalle gaistoaren
 « laztan falsoa, cër pacienciaz artu zuen; ta
 « etsaiac nola lotu zuten.

« Beguira, Jauna, munduan izan dan gau-
 « ric illunen, ta desdichaduen artan eraman,
 « ta igaro cituen neque, desprecio, lotsa,
 « ta tratu, pensatu al baño gogorrangoac:
 « ta orduan, ta urrengo goicean Anas, Cai-

„fas, Pilatos, ta Herodès echeetan, ta bide,
 „edo caleetan eramán cituenac : egun arta-
 „co testimonio, afrenta, burla, golpe, bo-
 „fetada, azote, coroa, ta burlazco Erre-
 „guearen soñecoa.

„Beguirá, Jauna, Pilatos-en eriotzaco,
 „sentencia gogorra artu zueneco aren Bio-
 „tceco pena, eta paciéncia : bere Gurutcea
 „artu, ta tormentuz, ta lotsaz beteric aren
 „Calvarioco Mendi santurañoco, neque pre-
 „cioso, ta pauso dolorezco tristeac : nere
 „pecatuen carga pisuac Gurutce pean artu,
 „ta auspez, baratzan bezala odola ceriola
 „ni gatic zuri erregutcen iduqui zuen amo-
 „rioa.

„Beguirá, Aita Eternoa, zure Seme
 „Cristoren arpegui ederra, orduan nere
 „culpaquin itsusitua, eta nola iltce gogor-
 „raz Gurutcean josi, eta gora jaso zuten:
 „ta án quedarrezco vinagre, eta beazunez-
 „co edaria eman cióten : nola bere etsaiac
 „gatic, ta ni gatic, oracio eguin, ta negarrez,
 „ta deadarrez barcacioa escatu citzun.

„Beguirá nola, bere Ama maitea guri
 „Amatzat utci, burua macurtu, eta bere
 „espíritua zure escuetan, Seme onac be-
 „zala, zuri bere Aitari bezala eman cizun.

„Ea, Jauna, contuetara gatozen. An-
 „diac,

» diac, asco, eta chit Isusi beltzac dira
 » nere culpac; baña are andiago dà zure
 » Semearen ofrenda, ta Sacrificio aú: one-
 » tan dago nere esperanza, eta seguridade
 » guztia, Badaquizu, zure Seme maitea Bi-
 » tarteco, ta fiadore irten zala: orra bada
 » Jauna nere pecatuen zorra: ta orra ne-
 » re pecatuen pagu osoa, ugaria, ta ecin
 » gueiago alacoa. Arrezazu zure Semearen
 » Sacrificio aú, ta quito, Jauna,

» Aita Eterno, Jaun justua. Badaquit,
 » zure itzaren Jabe cerana. Bada, ecin fal-
 » ratucoduen zure itz erreal Jaincozcoa dà
 » zure Semearen Icenean escatcen dizuguna,
 » emango diguzula. Onec berac escatcen-
 » , dizu, niri barcatceco: eta nic onen Ice-
 » nean escatcen dizut ori bera, ta ematendi-
 » zut zure Semeagan pagu gucia, berac ni-
 » ri, ta neretzat utci didana.

Beraren Gurutce Santua dà nere zorren
 » pagua, deabruen contraco arma segurua:
 » Gurutce Santua dà neretzat Ceruco atea-
 » ren GUILTZA maisua. Onequin, ta onetan
 » ill naidet: onetan zure Semeac bezala,
 » onequin batean nere espiritua eman nai-
 » dizut betico,

„ **O** Nere Jangoico , nere Criadore ,
 „ ta Salvadorea ! Jesus zure Seme
 „ onaren esperanza onequin, zure vorondatea
 „ danean, ill naidet. O nere dichazco zu icus-
 „ teco egun , ta ordua noiz etorrico dà!

„ Egarríac itotcen dan batec iturri fresco
 „ gozo bat nola deseatecduen , ala Jauna,
 „ nere animac Zu betico úr viciaren iturri
 „ gozoena. Leorrac erdiratecen duen lurra
 „ bezala zure egarríac dago nere anima. O
 „ Jauna, ceruco zure úr vici ori indazu, beñ
 „ betico ase , ta beste gaucen egarría quent-
 „ ceco.

„ O edertasun anciñacoa, ta beticoa! ; Zure
 „ arpegui ederra noiz icusico det? Eracusda-
 „ zu beñ , ta betico naiz dichosoa.

„ Ceruco Erregue , ta Jauna! ; Zure Jau-
 „ regui eder , andi zabal orretara , noiz igo-
 „ co naiz? ; Zure Jerusalengo Eche, edo Erri
 „ eder orretan Eternidade guztiraco noiz
 „ sartuco naiz?

„ ; O Nere gorputceco , ta criotzaco car-
 „ cela onetatic noiz libratuco ote naiz , ne-
 „ re anima libre , ta ariñ zugana igotceco?

„ ! O Gorputz onetatic libratcea , ta asca-
 „ tcea , ta nere Jesus onarequin betico ego-

„tea, nola, ta cembat deseaten dedan!

„Ay! Erbestetua nago lurrean, Cerura-
 „co eguiña naizala! ;Destierro aú noiz aca-
 „batuco dà? Erribestean canta aleguereric
 „ecin cantatuco det. O cër pena! ;Ceruco
 „Aingueruen Canta berri gozo úra noiz
 „adituco det?

„Dichoso, ta bienaventuraduac dira, Jan-
 „na, zurequin, zure Echean, ta zure al-
 „dean vici diranac. Secula gucietan alabatu-
 „co zaituzte, Zu icusi artean nere anima
 „triste dago. ;Zure Templo santuan noiz
 „sartuco naiz ni? O! An betico Zu adora-
 „tuco zaitut, ta zure Icen santua confesatu,
 „ta alabatuco det,

„Zu icusi, ta ez goseric, ez egarriric,
 „ez doloreric, ez negarric guciago izango
 „dá. Milla urte zure aurrean, arzo igarozan
 „eguna bezala dira. O cein pocic emengo
 „nequeac eraman ditezquean, Zu icustea-
 „gatic! O edertasun gucien eguille eder-
 „rena! Uso baten, edo Aingueruen egoac
 „norc lituquean, egaca bezala Zugana be-
 „reala igotceco, eta Zugan betico atsedec-
 „teco,

„Atoz eriotza, atoz ordu onean: atoz
 „nere cateac oiec ascatcera, nere centro,
 „edo toquirá ni noan. O nere Jainco, Is-
 „pillu

„pillu ederra! ;Zure arpeguico arguiñ cen-
 „gauza eder miragarriac icasi bearra na-
 „goen ! Zu , ceran bezala icustea, dà San-
 „tuen gloria vicia. ;Cerc nauca bada ni lim-
 „bo onetan ? Yá ordua badator : betor or-
 „du onean. O cér poza ondo illtcea.

„Yá illtcen naiz, Jauna : ezin itzeguindet:
 „moteldu , ta lotu dà nere mingaña : nere
 „beguietaco arguia , ta viotza ere illundu
 „da. Jauna , zure escuetan nere anima en-
 „comendatcen dizut. A Dios , nere aide,
 „adisquide , ta ezagunac. A Dios mundua.
 „Gucioc Jaincoari nigatic erregutu oraiñ
 „lurrean , guero alcar icusidezagun betico
 „Ceruan. Amen.

Illtceco zorian dagoenaren afeñto viciac.

„**N**Ere Jaungoico guciz ona , Aita , eta
 „Semea , ta Espiritu Santua ! Zugan
 „sinistendet : Zugan esperatcendet : eta Zu
 „gauza gucien gañean amaten zaitut.

„Aita Eternoa, zure Semearen Pasio, Gu-
 „rutce , ta Eriotza gatic eriotza on bat in-
 „dazu. ! Zure misericordiaren bear naiz : or-
 „ri deitcendiot ordu onetan , ta viotz guz-
 „titic.

„Nere argaltasunari zure piedadeaz be-
 „gui-

„guira zaiozu trançe onetan. Ay Jauna : da-
 „mudet Zu ofendituaz , ceren Zu aîn Ona
 „ceran.

„Nere Jesus maitea ! Nora biurtu , Zu-
 „gana baicic,ezdet. Zure odol preciosoaz ba-
 „liatu naidet, salvatceco. Misericordia nizaz.

„Damudet , Jauna , nere culpa guciaz; ce-
 „ren zure ofensac diran: damudet milla bider
 „ceren gauza guciengañean zuri naidizudan.

„¿O Nere biotz aú zure amorio garbiz
 „irazaquí , ta balego?

„Infernucó etsaiac galdú nai naute ordú
 „onetan. Ez arren , Jauna , ni utci : librana-
 „zazu : nie zurea izan beardet. Zu amateen
 „zatut.

„Pecataria izan naiz : eguia dà , Jauna. Ba-
 „ña nere gaitz guciac baño zure ontasun, ta
 „misericordia andiagoea dà.

„Virgiña MARIA Jaincoaren Ama. Gu-
 „rutcearen oñean zure Semearequin igaro
 „cinduen pena , ta doloreacgatic , lagun-
 „zadazu , eta zure mantupean betico ar-
 „tu nazazu.

„JESUS : Jesus milla bider. JESUS, MA-
 „RIA, ta JOSEF orañ, ta beti nere viotcean,
 „ta animan izan diteala.

„Jesus nere Salvadorea : izan zaite nere
 „JESUS, ta salvanazazu,

„San Josef bedeicatu gozoa: ;Non cera,
 „nere Aita maitea? Atoz niri laguntcera, ta
 „zure beso bedeicafuetan nere anima artcera.
 „Aingueru Santuac, zuen beguira nago,
 „atozte laster ni libratcera.

„Nere animaren Eguillea: zure escuetan
 „nere espiritua ematen dizut.

„Ama Virgíña MARIA: Ama graciaz-
 „coa, Ama misericordiazcoa, etsai gaisto-
 „tic libra nazazu, ta ordu onetan zugana ar-
 „ru nazazu.

„Aita Eternoa: ez nere desdichaí beguira-
 „tu czpada zure Semearen arpegui, ta Bio-
 „tzari. Argatic misericordia nizaz.

„Damuder, Jauna, Zu ofendituaz, Zu
 „cerana gatic. Misericordia.

„Jesus: Jesus beti nere viotcean: Jesus-
 „egan nere viotz, ta amorio gucia.

„JESUS, MARIA, ta Josef, Joaquín,
 „ta Ana, atozte gucioc nigana.

„Jesus orañ, ta beti baliadaquídala. Jesus
 „izan bedi nere esperanza, nere consuelo,
 „nere amore, ta nere gloria vícia. Ori ne-
 „re Jesus, zure anima aú: orí Jesus, zure
 „espiritu aú, espíritu guciaquin zu beti ala-
 „batceco, ta zure misericordiac beti cantat-
 „ceco. Amen.

„Nere Jesus ona: zure Biotza idiquitcén
 „duen

„duen ni or artceco or sartu naidet seculaco,
 „or artu nazazu betico.

„Sinisten , ta esperatcendet zugar : ta zu-
 „gan nere amorioa betico. Amen.

Onelaco afecto vici laburren artean, aleguñaz , ill bearda. Jaunaren Ministroc badaqui , beñ batzuec , guero besteac, banacata soseguz eraguin bear dirala ; ilteen dagoenari , viotcean oriec eguñteco lecu, ta atsedena emanaz eta ondo aditcen ezipadu azquenean , ez belarrietatic , baicic buru gañetic Sacerdoteac eriarri itceguin beardio, obeto adierazotceco. Eta oneraño dá Ilteen laguntceco Exercicioa.

De Visitatione Infirmorum.

NEre Iracurlea : Lecu onetan ondo icustenda len aditcera eman dedan Eleiza Santaren zure animarequico contu andia. Zu gaiso zaudeneco , ta are guciago gaitzandi , edo eriotzaco peligroan sartcen ceraneco ; Jaincoac emen bere Ministroai amazazpi Erregla chit ederrac , ta zure favore andicoac ematen dizte : Nola zu icustatu, edo visitatu , nola zuri lagundu , ta zure neque gucietan animatu bear zaituzten : cer consejuac eman , cer Santuen egemploac con-

contatu , ta visita orietari cer arrazoiaz baliatu bearduten , ta saluacioco bidean nola seguratu bear zaituzten.

Jaungoicoa alabateeco gauza dá : ta orregatic esaten dizut. Eta nola Eleiza Santac infernuaren contra dituen arma poderosoac Sacerdote Jaunen esuetan, ta aoan Jangoicoac dauzcan, ta batecere Evangelio Santuac oiee Ritual sagraduan dauden Oracioaquin nic emen eman naiditut. Modu ascotan Libruetan arquitcen dira. Baña espiritu Santuac bere Elizan ematen dituenac gucienzat onenac dira : éta ala fede viei ta devocio andiaz , erremedio edo conjuro Santu oiee zue aditu beardituzu.

Eleiza Santaren iru Oracio, Evangelioaquin len , edo guero gaisoari esateco,

OREMUS.

Deus , cui proprium est misereri semper, & parcere : suscipe deprecationem nostram , ut nos , & hunc famulum tuum, quos delictorum catena constringit miseratione tuæ pietatis clementer absolvat.

Deus infirmitatis humanæ singulare presidium: auxiliis tui super infirmam famulum tuum ostende virtutem , ut ope misericordie

illa adjutus Ecclesie tue Sancte Incolumnis
representari mereatur.

Concede hunc famulum tuum quæsumus
Dñe Deus perpetua mentis, & corporis sa-
nitate gaudere, & gloriosa Beatæ Mariæ sem-
per Virginis intercessione à presenti liberari
tristitia, & æterna perfrui lætitia. Per Chris-
tum Dominum nostrum. Amen.

EVANGELIO SANTUAC.

Gaius edo, erial errezatceco modua.

¶ Dominus vobiscum.

R: Et cum spiritu tuo.

✠ Sequentia Sancti Evangelii secundum
Matheum. *Matt. c. 8.*

R Gloria tibi Dñe.

IN illo tempore : cum introisset Jesus Ca-
pharnaum, accessit ad eum Centurio,
rogans eum & dicens : Domine, puer meus
iacet in domo paralyticus, et malè torque-
tur. Et ait illi Jesus : Ego veniam, & cu-
rabo eum. Et respondens Centurio ait : Do-
mine non sum dignus, ut intres sub tectum
meum, sed tantum dic verbo, & sanabitur
puer meus. Nam, & ego homo sum sub
potestate constitutus, habens sub me milites,
& dico huic : vade, & vadit ; & alii, veni,
& venit ; & seruo meo ; Fac hoc & facit.

Audiens autem Jesus miratus est, & sequen-
tibus se dixit: Amen dico vobis; non in-
ueni tantam fidem in Israël... Et dixit Je-
sus Centurioni: Vade, & sicut credidisti,
fiat tibi: & sanatus est puer in illa hora.

R. Laus tibi Christe.

O R E M U S.

Omnipotens sempiterne Deus, salus eter-
na credentium: exaudi nos pro infir-
mo famulo tuo N. pro quo misericordiae
tuae imploramus auxilium: ut reddita sibi
sanitate, gratiarum tibi in Ecclesia tua refe-
rat acciones. Per Christum Dominum nos-
trum. R. Amen.

V. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

✠ Sequentia Sancti Evangelii secundum
Marcum. *Marc. c. 16*

R. Gloria tibi Dñe.

In illo tempore: Recumbentibus undecim
Discipulis, apparuit illis Jesus, & expro-
bravit incredulitatem eorum, & duritiam
cordis, quia iis, qui viderant eum resur-
rexisse, non crediderunt. Et dixit eis: Eun-
tes in mundum universum, praedicatae Evan-
gelium omni creaturae. Qui crediderit, &

baptizatus fuerit, saluus erit: qui veró non crediderit, condemnabitur. Signa autem eos, qui crediderint, hæc sequentur. In nomine meo dæmonia eiicient: Linguis loquentur novis: serpentes tollent: & si mortiferum quid biberint, non eis nocebit: super ægros manus imponent, & benè habebunt.

R. Laus tibi Christe.

OREMUS.

Virtutum cælestium Deus, qui ab humanis corporibus omnem languorem, & omnem infirmitatem præcepti tui potestate depellis: adesto propitius huic famulo tuo N. ut fugatis infirmitatibus, & viribus receptis, Nomen sanctum tuum, instaurata protinus sanitate, benedicat. Per Christum Dominum nostrum. *R.* Amen.

ψ. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

✠ *Sequentia Sancti Evangelii secundum Lucam.* *Luc. c. 4.*

R. Gloria tibi Domine.

In illo tempore: surgens Jesus de Synagoga introivit in Domum Simonis. Socrus autem Simonis tenebatur magnis febribus: & rogaverunt illum pro ea. Et stans super
illam,

Illam, imperavit febrī. Et dimisit illam, & continuo surgens ministrabat illis. Cum autem sol occidisset, omnes qui habebant infirmos variis languoribus, ducebant illos ad eum. At ille singulis manus imponens, curabat eos.

R. Laus tibi Christe.

OREMUS.

Domine Sancte Pater omnipotens æterne Deus, qui fragilitatem humanæ conditionis, infusa virtutis tuæ dignatione confirmas, ut salutaribus remediis pietatis tuæ, corpora nostra, & mentes vegetentur: super hunc famulum tuum propitius intende: ut omni necessitate corporeæ infirmitatis exclusa, gratia in eo pristinae sanitatis perfectè reparetur. Per Christum Dominum nostrum.

R. Amen.

ψ. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

✠ Initium S. Evangelii secundum Joannem.

R. Gloria tibi Domine.

IN principio erat Verbum, & Verbum erat apud deum & Deus erat Verbum. Hoc erat in principio apud deum. Omnia per ipsum facta sunt: & sine ipso factum est nihil quod fac-

tum

tum est: in ipso vita erat, & vita erat lux hominum: & lux in tenebris lucet, & tenebrae eam non comprehenderunt. Fuit homo missus a Deo, cui nomen erat Joanes. Hic venit in testimonium, ut testimonium perhiberet de lumine, ut omnes crederent per illum. Non erat ille lux, sed ut testimonium perhiberet de lumine. Erat lux vera, quæ illuminat omnem hominem venientem in hunc mundum. In mundo erat, & mundus per ipsum factus est, & mundus eum non cognovit. In propria venit, & sui eum non receperunt. Quot quot autem receperunt eum, dedit eis potestatem filios Dei fieri, his qui credunt in nomine eius: Qui non ex sanguinibus, neque ex voluntate carnis, neque ex voluntate viri, sed ex Deo nati sunt. Et Verbum Caro Factum est, & habitavit in nobis: & vidimus gloriam ejus, gloriam quasi Unigeniti a Patre plenum gratiæ & veritatis.

R. Laus tibi Christe.

O R E M U S.

Respice, Domine famulum tuum in infirmitate sui corporis laborantem, & animam refove, quam creasti; ut castigatio-

tionibus emendatus, continuo se sentiat tuam
 medicina saluatum. Per Cristum Dominum
 nostrum. R. Amen.

Super aegros manus imponent, & bene
 habbunt. Jesus Mariæ filius mundi salus
 & Dominus, meritis, & intercessione San-
 torum Apostolorum suorum Petri, & Pauli
 & omnium Sanctorum sit tibi clemens, &
 propitius. Amen.

Benedictio Dei omnipotentis Patris ✠, &
 Filii, & Spiritus Sancti, descendat super te,
 & maneat semper Amen.

Aspergat eum aqua benedicta.

LAUS DEO.



